

KOIUNTURAZ

71. zkia. – 2. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA


LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	18
Kanpo saldoa	21
Lan merkatua.....	26
Prezioak, kostuak eta soldatak	32
Arlo publikoa.....	37
Finantza arloa	40
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	46
Testuinguruarentzako aurreikuspenak.....	46
EAErako aurreikuspenak	53

LABURPENA

2010. urtearen hasieran, EAEko ekonomiak barne produktu gordinaren (BPG) jaitsiera leuntzen jarraitu zuen eta %-0,6ko tasa jaso zuen urte arteko terminoetan, hots, aurreko hiruhilabeteko emaitza (%-2,5) baino ia bi puntu gorago kokatu zen. Datu hori INEk Espainiarentzat estimatu duena (%-1,3) baino askoz ere hobea da, baina atzerapen garrantzitsua erakusten du Europak lortu duen suspertze erritmoaren aldean, lurralde horrek %0,3ko hazkunde tasa izan zuelako epealdi berean. Hiruhilabete arteko tasetan, berriz, BPGren gehikuntza hamarren batekoa izan zen, beraz, bi hiruhilekoz jarraian hazkunde positiboa lortu da, bietan hazkunde horiek nahiko txikiak izan ziren arren. Horrek agerian uzten du Euskadi oso astiro irtengo dela atzeralditik.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.

1. irudia




Iturria: Eustat.

Aurtengo lehen hiruhilabeterako argitaratu diren estatistika datuek munduko ekonomia oso bizkor sendotzen ari dela adierazten dute, ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten

nazioarteko erakundeak berak harrituta utziz. Hain zuzen ere, munduko jarduera %4,0 hazi zen aurtengo lehen laurdenean, 2009ko amaierako emaitza gaindituz eta azken bi hamarkadetan izandako batez besteko hazkunde tasa (%3,4) baino askoz ere gehiago. Beraz, ikuspegi global batean, azken biurtekoan bizi den atzeraldi sakona gaindituzat jo daiteke. Hala eta guztiz ere, susperraldi hori abiadura ezberdinetan gauzatzen ari da eremu batzuetan eta besteetan. Izan ere, garapen bidean dauden herrialde gehienek, Txina guztien aurretik dagoela, emaitza bikainak lortu zituzten eta BPGren hiruhilabeteko gehikuntzaren zati handiena beraiek ekarri zuten. Halaber, garatutako herrialdeen artean ere alde handiak daude hazkunde erritmoan. Esate baterako, AEBek gehikuntza garrantzitsua lortu zuten urte hasieran, baina Europar Batasunak hamarren gutxi batzuk bakarrik areagotu zuen bere ekonomia.

Munduko ekonomia. BPGren bilakaera (ezkerrean) eta nazioarteko merkataritza.

2. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakuntzaren datuak erabilia.

AEBak europar herrialdeak baino lehenago itzuli ziren hazkunde tasa positiboetara eta aurtengo lehen hiruhilekoan %2,4ko urte arteko tasa lortu zuten, azken bederatzi hiruhilekoetako baliorik gorena baita. AEBetako produktu gordinaren bilakaeran, kontsumo pribatuaren eta ekipamenduan eta softwarean eginiko inbertsioen bultzada azpimarratu behar dira. Europar Batasunak, berriz, portaera ahulagoa erakutsi zuen eta %0,3 baino ez zuen areagotu bere BPG, munduko lehen potentziaren aldean atzerapen garrantzitsua duela agerian utziz. Herrialde multzo horretan, oso esanguratsuak dira Alemaniaren (%1,5), Frantziaren (%1,2) eta Italiaren (%0,6) emaitzak, Erresuma Batuaren (%-0,3) eta, neurri handiagoan, Espainiaren (%-1,3) jaitsieren aldean. Euroguneak, oro har, erakusten duen ahultasunak eta

Europako hainbat herrialdetako zor publikoak –bereziki, Greziako zorrak- sortu dituen zalantzek mesfidantza ekarri diote euroari, gainontzeko diru nagusien aldean balioa galdu duelarik.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010
			II	III	IV	I
Europar Batasuna 27	0,8	-4,2	-5,0	-4,3	-2,3	0,3
- EAE	1,9	-3,3	-3,7	-4,1	-2,5	-0,6
- Espainia	0,9	-3,6	-4,2	-4,0	-3,1	-1,3
- Alemania	1,3	-5,0	-5,8	-4,8	-2,2	1,5
- Frantzia	0,4	-2,2	-3,2	-2,6	-0,4	1,2
- Italia	-1,3	-5,0	-6,1	-4,7	-2,8	0,6
- Erresuma Batua	0,5	-5,0	-5,9	-5,3	-3,1	-0,3
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	0,4	-2,4	-3,8	-2,6	0,1	2,4
Japonia	-1,2	-5,2	-6,0	-4,9	-1,4	4,6
Txina	9,6	8,7	7,9	9,1	10,7	11,9
India	7,3	6,5	6,1	7,9	6,0	8,6
Errusia	5,6	-7,9	-10,9	-8,9	-3,8	4,5
Brasil	5,1	-0,2	-1,6	-1,2	4,3	9,0

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Hain zuzen ere, euroaren kotizazioa aurtengo hasieran 1,43 dolarretan zegoen eta maiatzean, berriz, 1,26 dolarretara jaitsi zen, balioaren %12 galduta. Yenarekiko balio galera zertxobait handiagoa izan da (%16). Europako diruaren balio galerak berehalako eragina izan du inportatutako lehengaien prezioan, urte osoan zehar garestitze garrantzitsua izan dutelako. Orobat, kontuan hartu behar da munduko ekonomiaren susperraldiak ekoizkin horien eskaria biziagotu zuela eta, horren ondorioz, garestiago saltzen zirela nazioarteko merkatuetan. Beraz, europar enpresen faktura bi bidetatik garestitu da: eskariaren presioarengatik eta truke tasarengatik. Lehengaien artean, industria produktuen garestitzea nabarmentzen da, %75 garestitu baitira, garapen bidean dauden herrialdeen eta atzeralditik irteteko bidean aurreratuago dauden herrialde garatuaren bizitasunaren ondorioz. Era berean, petrolioaren upelaren salneurria %65 baino gehiago garestitu da azken hamabi hilabeteetan.



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Lehenago aipatua izan denez, oraingo hedatze aldi honetan bizitasun handiena erakusten ari diren herrialdeak garapen bidean daudenak dira. Herrialde horien artean, Txinaren sendotasuna nabarmentzen da, lehen hiruhilekoan %11,9ko urte arteko hazkundera lortu zuelako, bertako aurreikuspenak berak gaindituz. Erraldoi horren itzalean, inguruneke beste herrialdeek ere bi zenbakiko tasak jaso dituzte, hala nola Taiwanek (%13,3), Singapurrek (%15,5), Malasiak (%10,1) eta Tailandiak (%12,0). Maila horietara iritsi gabe, baina emaitza onak lortuta, India (%8,6) eta Indonesia (%5,7) agertzen dira. Orobat, Japonia Asiako bizitasunaz baliatu da eta %4,6ko urte arteko tasa lortu zuen, gutxienez 2000. urtetik inoiz lortu duen urte arteko tasarik gorena delarik. Brasilek bere hazkunde erritmoa areagotu zuen eta %9,0ko tasa lortu zuen, Amerika Latinoaren susperraldia lideratuz.

Europar ekonomien susperraldi ahulak sortu duen testuinguruan, Euskadik bere BPGren jaitsiera gutxitzea lortu zuen eta 2010eko lehen hiruhilekoan %-0,6an kokatu zuen urte arteko aldakuntza tasa, aurreko hiruhilabeteko emaitza ia bi puntuz hobetuz. Beraz, Europar Batasunaren emaitza positiboaren (%0,3) eta Espainiako batez beste negatiboagoaren (%-1,3) artean geratu da. EAEko barne eskariak oso nabarmen leundu zuen bere narriadura eta BPGren gehikuntzari egiten zion ekarpen negatiboa gutxitu zuen, puntu bat eta erdian utzita. Kanpo arloak, berriz, puntu batera gutxigatik iristen ez den ekarpen positiboari eutsi zion, atzerrira bideratutako esportazioek, testuinguru hedakorrago batek lagunduta, izan zuten suspertzeari esker.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010
			II	III	IV	I
BPG erreala	1,9	-3,3	-3,7	-4,1	-2,5	-0,6
Enplegua	1,0	-3,5	-4,2	-3,9	-3,1	-1,9
Ekoizkortasun irabaziak	0,9	0,3	0,6	-0,2	0,5	1,2
Langabezia tasa	3,8	8,1	7,8	8,3	8,7	8,9
Kontsumoko prezioen indizea	4,1	0,3	0,0	-0,3	0,5	1,0

Iturria: Eustat eta INE.

Ekonomia arloen ikuspegi batetik, zerbitzuetako balio erantsiaren susperraldia nabarmendu behar da, merkaturatzen diren zerbitzuek protagonismo handia bereganatu zutela, goranzko joera berreskuratuta. Industriaren bilakaera ere itxaropentsua da, 2009ko jaitsiera biziak atzean utzi zituelako eta urte arteko tasa %-1,6ra murriztu zuelako. Lehen hiruhilabeteko alderdirik ezkorrena eraikuntzaren ahultasuna izan zen, urte arteko tasa %-6,5ean kokatu baitzen, hots, 2009an izandako balioen azpitik. Arlo horretako adierazle batzuek datu hobeak eman dituzten arren, jarduera horren susperraldia oraindik urrun dagoela ematen du. Etxegintzaren alorrean, saldu gabeko bizitegi gehiegi dago oraindik eta inbertsioan egingo den gastu publikoa murriztuko denez, obra zibila ezin izango da asko hazi.

Ekonomiak egin zuen bezala, enpleguak ere jaitsiera erritmoa oso nabarmen leundu zuen eta urte arteko aldakuntza tasa %-1,9an kokatu zuen. Tasa horrek adierazten du 18.600 lanpostu galdu zirela urtebete bateko epean. Enpleguaren galerak %8,9ra igoarazi du langabezia tasa, BJA inkestaren arabera. Tasa hori handia da, baina oso urrun dago BAI inkestak espainiar ekonomia osoarentzat estimatu zuen tasatik (%20). Produktuaren eta enpleguaren konbinaketak iradokitzen du ekoizkortasuneko irabaziak areagotu direla, bi urtez jarraian gehikuntza tasa txikiak lortu ondoren. Prezioei dagokienez, ez da eskariaren aldetiko tentsiorik hautematen eta aurtengo lehen hilabeteetan gauzatu den gorakada petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen garestitzearen ondorioa da. Inflazioaren gune egonkorrenean biltzen diren produktuek, hots, azpiko inflazioak, hamarren gutxiko urte arteko tasak erakusten ditu oraindik.

Datozen hiruhilekoei begira, EAEko BPGk suspertzeko joerari eutsiko diola aurreikusten da, bigarren hiruhilekoan bertan aldakuntza tasa positiboak berreskuratuko direlarik, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenaren arabera. Barne eskariak atzean utziko ditu

aurreko hiruhilabeteetako beherakadak, kontsumo pribatuaren eta, atzerapen batekin, kapital eraketa gordinaren bultzadari esker. Horrek inportazioak areagotuko ditu eta kanpo arloaren ekarpena murriztuko da.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENEN LABURPENEA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2010			2011			
			II	III	IV	I	II	III	IV
BPG erreala	0,5	1,6	0,8	0,8	1,1	1,3	1,5	1,7	1,9
BPGren deflatoea	1,2	2,0	1,0	1,3	1,4	1,8	1,9	2,1	2,3
Enplegua	-0,9	0,4	-0,9	-0,5	-0,1	0,0	0,3	0,6	0,8
Langabezia tasa	9,3	9,2	9,2	9,4	9,5	9,4	9,2	9,2	9,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Industriak urte arteko gehikuntza tasa positiboak bigarren hiruhilekoan bertan berreskuratuko ditu, nazioarteko merkataritzak sektoreari ekarri dion bizitasunak lagunduta. Aitzitik, eraikuntza ez da gai izango tasa negatiboak gainditzeko eta denbora luzeagoa beharko du desorekak konpontzeko. Zerbitzuek, berriz, gero eta joera biziagoa erakutsiko dute eta merkaturatzen diren zerbitzuek protagonismoa bereganatuko dute, merkaturatzen ez diren zerbitzuen kaltetan.

Enpleguari dagokionez, lanpostuen galera aurtengo amaiera arte luzatuko da, baina jaitsierak gero eta txikiagoak izango dira. 2011ko hasieratik hasiko da enplegu garbia sortzen. Aldi berean, langabezia tasak gora egingo du berrito, baina %10era ez dela iritsiko aurreikusten da. Aldagai horrek aldakuntza txikiak izango ditu ondorengo hiruhilekoetan, une batetik hurrengora pare bat hamarren baino ez baitira igo edo jaitsi. Azkenik, prezioak ez dira arazoa izango aurtengo hilabeteetan eta 2011ko bigarren erdira arte ez da aurreikusten %2ko helburua gaindituko dutenik.

EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua

2010eko lehen hilabeteetan, aurreko urteko udaberrian munduko ekonomiak hasi zuen susperraldiak jarraipena izan zuen. Eskaria sustatzeko moneta eta zerga politikak mantendu izanak, merkataritzako fluxuak lehengoratu izanak eta enpresarien zein kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntzak susperraldirako norabidea erraztu zuten. Halaber, eta Euroguneko hainbat herrialdeetako finantza publikoen egoera txarrarekin lotuta dauden ezegonkortasuneko aldi batzuk bizi ziren arren, munduko ekonomia jarduerak lortu duen gorakadak finantza merkatuetako susperraldia sendotu zuen. Aurrekoaren ondorioz, munduko ekonomiak hobekuntza nabarmena izan zuen, %4,0aren inguruko tasa lortuta, aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusiek uste zutena baino hazkunde tasa handiago bat delarik.

Hala eta guztiz ere, susperraldiaren urratsak ez ziren berdin hauteman eremu geografiko guztietan. Azaleratzen ari diren ekonomiak izan ziren jardueraren bultzagile nagusiak eta ekarpen nabarmena egin zioten munduko hazkundeari nazioarteko merkataritzaren bidez. Hazkunde tasa handienak garatzen ari den Asiak eta Amerika Latinoak jaso zituzten. Izan ere, eremu horietako suspertze erritmoa hain bizia izan zen, ezen herrialde batzuetan krisiaren aurreko jarduera maila berreskuratu eta, are gehiago, gainditu baitzen. Maila bat beherago, AEBek eta Japoniak urte arteko aldakuntza tasa positiboak eta sendoak lortu zituzten. Europar Batasunak ere atzean utzi zuen krisiaren une larriena eta hazkunde positiboak berreskuratu zituen, baina hobekuntza erritmoa ahula zen oraindik. Lan merkatuaren narriadura, kontu publikoen okertzea eta kreditu bat lortzeko oraindik dauden zailtasunak oztopoak izan ziren susperraldi biziagoa lortzeko orduan.


Petrolioaren eta lehengaien salneurriak gora egin zuen arren, inflazioaren presioak apalak izan ziren oraindik eta mundu osoan kontrolpean egon ziren, erabili gabeko ekoizpen ahalmena handi samarra delako. Garapen bidean dauden merkatu bizienetan bakarrik hauteman zen hazkunde handiago bat.

Jarduerak eta munduko merkataritzak hobekuntza garbia erakutsi zuten arren, susperraldiaren makaltasunak, lan merkatuaren egoera ahulak eta finantza merkatuetan gertatzen ari diren gorabeherak susperraldiaz zuhurtziaz hitz egitera behartzen dute. Izan ere, erronka hobekuntza horri eustean eta sendotzean egongo da, are gehiago politika ekonomikoaren laguntzak kentzen direnean, horiek izan baitira susperraldiaren sustatzaile nagusiak.


Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Hiruhilabete arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Garapen bidean dauden ekonomiek berriro lortu zituzten hazkunde handienak, munduko hazkundearen oinarri nagusiaren papera bereganatuz. Amerika Latinoko ekonomia nagusia eta munduko zortzigarren potentzia, hots, Brasil, %9,0 hazi zen urte arteko tasan, hazkunde tasa handiena gutxienez 1996. urtetik. Neurri handi batean, inbertsioan eginiko gastuak eta industria ekoizpenaren sendotasunak ekarri zuten hazkunde hori. Asian, berriz, Txinak eragin zuen eremuaren gehikuntza. Hain zuzen ere, Txina %11,9 hazi zen, 2007ko azken hiruhilekotik jaso duen emaitzarik onena baita. Kontsumoaren eta inbertsioaren gorakada sendoak barne eskaria ekonomiaren bultzagile nagusi bihurtu zuten, kanpo arloari txanda hartuta, azken honek hamarren batzuk kendu baitzizkion hazkundeari. Are gehiago, Txinako ekonomiaren bilakaera sendoak inguruneke herrialdeen ongizateari laguntza eman zion, oinarritzko ondasunen eta bestelako enbargoetako eskaerak prezio altuak eragin zituelako, inguruko herrialdeek esportazioen bidez lortu zituzten irabaziak areagotuz.

Ekonomia garatuek ere hobekuntza garrantzitsuak lortu zituzten, baina tamaina gutxiagokoak. ELGE eremua %2,5 hazi zen eta G-7 osatzen duten ekonomia nagusi guztiek, salbuespena Erresuma Batua delarik, urte arteko hazkunde tasa positiboak lortu zituzten, bost hiruhilekoz jarraian beherakadak izan ondoren. Japonia eta AEBak nabarmendu ziren, krisia hasi baino lehenagoko hazkundeak gaindituta. Ondoren, Alemaniak eta Frantziak izan zituzten datu onenak eta Eurogunearen hazkunde nabarmen gorarazi zuten.

Hain zuzen ere, AEBak %2,4 hazi ziren aurtengo lehen hiruhilekoan. Kontsumo pribatuaren berpizteak, ekipamenduan eta softwarean eginiko inbertsioaren gorakadak, izakinen ekarpen positiboek eta esportazioen suspertzeak ekonomia jarduera areagotu zuten. Bizitegietan eginiko inbertsioak berak ere hobetzeko zantzuak erakutsi zituen, nahiz eta oraindik tasa negatibotan dagoen. Lan merkatua izan zen berriro estatubatuar ekonomiaren puntu ahulena. Hiru hilabetez langabezia tasa %9,7an egonkor mantendu ondoren, eta apirilean 290.000 lanpostu garbi sortu zuten arren, langabezia tasak gora egin zuen berriro apirilean eta %9,9ra iritsi zen. Atzeraldi honetako enplegu galera, alde handiz gainera, 1945. urtetik gertatu den handiena izan da. Azkenik, prezioak egonkor mantendu dira, inflazioan tentsiorik gabe. Hori dela eta Erreserba Federalak politika hedatzaileari eutsi zion.

Ia bi urtez hazkunde tasa negatiboak jaso ondoren, Japoniako BPGk modu harrigarrian egin zuen gora eta %4,2 hazi zen, 1991ko lehen hiruhilekotik inoiz lortu duen tasarik gorena. Esportazioen gorakada apartak, 2009ko azken hilabeteetako murrizketaren aldean 40 puntu baino gehiago irabazi baitzituen, kontsumo pribatuaren portaera onak eta ekipamenduan eginiko inbertsioaren nolabaiteko hobekuntzak hazkunde garrantzitsu hori eragin zuten. Lan merkatuan, langabezia tasa bere horretan geratu zen, atzeraldiaren aurreko mailak berdinduz. Inflazioak, berriz, behera egin zuen berriro, baina zertxobait gutxiago, petrolioaren

garestitzearengatik. Japoniaren hazkundera sendotzeko, neurri handi batean, ezinbestekoa da prezioak eremu positibora itzultzea.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
BPG erreala							
AEB	0,4	-2,4	-3,3	-3,8	-2,6	0,1	2,4
Japonia	-1,2	-5,2	-8,6	-6,0	-4,8	-1,4	4,2
EB - 27	0,7	-4,2	-5,1	-5,1	-4,3	-2,3	0,5
- Alemania	1,3	-4,9	-6,7	-5,8	-4,8	-2,2	1,5
- Frantzia	0,2	-2,6	-3,9	-3,2	-2,6	-0,4	1,2
- Erresuma Batua	0,5	-4,9	-5,3	-5,9	-5,3	-3,1	-0,2
Inflazioa							
AEB	3,8	-0,4	0,0	-1,2	-1,6	1,4	2,4
Japonia	1,4	-1,4	-0,1	-1,0	-2,2	-2,0	-1,2
EB - 27	3,7	1,0	1,6	0,9	0,4	1,0	1,7
- Alemania	2,8	0,2	0,8	0,3	-0,4	0,3	0,8
- Frantzia	3,2	0,1	0,7	-0,3	-0,5	0,4	1,4
- Erresuma Batua	3,6	2,2	3,0	2,1	1,5	2,1	3,3
Langabezia tasa							
AEB	5,8	9,3	8,2	9,3	9,6	10,0	9,7
Japonia	4,0	5,1	4,5	5,1	5,4	5,2	4,9
EB - 27	7,0	8,9	8,2	8,8	9,2	9,4	9,6
- Alemania	7,3	7,5	7,3	7,6	7,6	7,4	7,3
- Frantzia	7,8	9,5	8,9	9,4	9,7	9,9	10,0
- Erresuma Batua	5,6	7,6	7,0	7,7	7,8	7,7	7,8

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasunak bat egin zuen joera positibo horrekin, baina hazkunde erritmoa ahulagoa izan zen. Izan ere, hazkundearen oinarrian, bereziki, eremu horretako ekonomia nagusien, hots, Alemaniaren eta Frantziaren gorakada zegoen, %1 baino gehiago hazi zirelako. Zehazkiago adierazita, Europako barne eskariak ahultasun garrantzitsua erakutsi zuen, hala kontsumoan nola inbertsioan, eremuaren susperraldia mugatuz. Izakinen aldakuntzak eta esportazioen gorakada esanguratsuak bakarrik egin zioten ekarpen positiboa hazkundeari, urte arteko tasan %0,5eko gehikuntza jaso baitzuen.

Herrialdeka aztertuta, Alemanian, kontsumo pribatuak eta inbertsioak ezin izan zuten jardueraren erantzukizuna berenganatu eta kanpo arloa izan zen hazkundearen bultzagile nagusia, euroak balioa galdu zuela eta Asiako eskaria gehitu zela aprobetxatuz. Bertako BPG %1,5 hazi zen. Frantzian, kontsumoaren sendotasunak, bai publikoak bai pribatuak, eta esportazioen igoerak %1,2ra igoarazi zuten hazkunde tasa, sei hiruhilabete iraun zuen atzeraldiari amaiera emanez. Erresuma Batuak, berriz, zailtasunak erakutsi zituen berriro krisitik irteteko. Aurrezteko tasa maila altuetara itzuli izanak eta kreditu bat lortzeko zailtasunek kontsumo pribatua eta inbertsioa jaitsarazi zituzten. Liberaren balio galera ez zen nahiko izan kanpo arloa bultzatzeko eta, barne eskariak bezala, hamarrenak kendu zizkion hazkundeari. Horren ondorioz, ekonomia horren jarduera %-0,2 murriztu zen, tasa positiboak berreskuratzeko gertu, baina Alemaniako eta Frantziako norabidetik atzeratuta.

Europako susperraldiaren galga nagusia lan merkatuaren narriadura izan zen, langabeen kopurua etengabe areagotu zelako. Otsailean, 23 milioi langabe baino gehiago zeuden eta hurrengo bi hilabeteetan kopuru hori areagotu zen, apirilean 23,3 milioi langabera iritsi arte. Europako ekonomia nagusien artean, Alemaniak bakarrik lortu zuen langabeen kopurua zertxobait gutxitzea. Hala ere, hiru milioi baino gehiago zeuden herrialde horretan, ia 4,5 milioi Espainian eta beste bost milioi Italiaren eta Frantziaren artean. Beraz, Europako langabezia tasa %9,7an kokatu zen, hamarkada oso batean izan den maila gorena delarik.

Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioak goranzko norabidea hartu zuen, osagai gorabeheratsuenek, hots, energiak eta landu gabeko elikagaiek, igoerak izan zituztelako. Alemaniak eta Frantziak gehikuntza txikiak izan zituzten, baina urte arteko tasak ez ziren asko igo eta EBZk ezarritako helburuaren azpitik egon ziren. Aitzitik, Erresuma Batuan igoera handiagoak jaso ziren eta inflazioak %3,0 gaitzitu zuen. Tasa hori ezerosoa da Ingalaterrako Bankuaren moneta politika kudeatzeko eta erakundeak aukeratu beharko du prezioak kontrolatzearen eta hazkunde apala bultzatzearen artean.

Espainiaren joera ez zen horren baikorra izan eta Erresuma Batuekin batera hazkunde positiboak berreskuratzea lortu ez zuen Europako ekonomietako bat izan zen. Hala ere, atzerakada aurreko hiruhilabetekoa baino leunagoa izan zen. Hiruhilabete arteko tasan, espainiar ekonomiak atzeralditik irten zela baieztatu zuen, aurreko hiruhilekoaren aldean %0,1 hazi zelako, 2008ko lehen hiruhilekotik lortzen duen lehen datu positiboa delarik.

Barne eskariaren aldagai guztiek murriztu zuten jaitsiera tasa. Kontsumo pribatuak ia hiru puntu gutxitu zuen beharakada, errenta erabilgarriaren bilakaerak eta konfiantzaren berreskurapenak lagunduta. Ekipamenduan eginiko inbertsioak gorakada garrantzitsua lortu zuen eta %-9,9an kokatu zen. Oro har, barne eskariak ekarpen negatibo txikiagoa egin zion

hazkundeari, baina kanpo eskariak ere bere ekarpen positiboa murriztu zuen. Eskaintzaren aldetik, ekonomiaren ia sektore guztiek aurreko hiruhilabeteko emaitzak hobetu zituzten, baina merkaturatzen ez diren zerbitzuek bakarrik lortu zituzten hazkunde tasa positiboak. Aitzitik, lehen arloak eta eraikuntzak emaitza okerragoak jaso zituzten. Eraikuntzak sustapen egitasmoen amaiera eta azpiegituretarako gastuaren murrizketa nabaritu zituen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA
5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	0,9	-2,7	-2,6	-3,2	-2,5	-2,3	0,0
- Familien gastua	-0,6	-5,0	-5,5	-6,0	-5,0	-3,5	-0,6
- Administrazioaren gastua	5,5	3,8	6,0	4,7	4,1	0,8	1,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	-4,4	-15,3	-14,9	-17,0	-16,0	-12,9	-9,9
- Ekipamendurako ondasunak	-1,8	-23,1	-24,0	-28,3	-23,8	-15,3	-2,5
- Eraikuntza	-5,5	-11,2	-11,3	-11,6	-11,4	-10,2	-10,6
- Bestelako ekoizkinak	-4,3	-17,2	-13,2	-17,6	-19,9	-18,5	-17,5
- Izakinen aldakuntza (*)	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,0
Nazio eskaria (*)	-0,5	-6,4	-6,3	-7,4	-6,6	-5,3	-2,5
Esportazioak	-1,0	-11,5	-16,6	-14,7	-10,8	-2,9	8,0
Inportazioak	-4,9	-17,9	-22,3	-21,7	-17,0	-9,6	2,6
BPG (m.p.)	0,9	-3,6	-3,3	-4,2	-4,0	-3,1	-1,3
Nekazaritza eta arrantza	-0,8	-2,4	-3,0	-2,5	-2,2	-1,9	-2,9
Energia	1,9	-8,2	-7,6	-9,3	-7,6	-8,3	0,3
Industria	-2,1	-14,7	-15,3	-16,7	-15,5	-10,9	-3,7
Eraikuntza	-1,3	-6,3	-5,8	6,7	-6,8	-5,8	-5,9
Zerbitzuak	2,2	-1,0	-0,3	-1,3	-1,3	-1,1	0,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,0	-2,0	-1,6	-2,3	-2,4	-1,5	-0,6
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	4,1	-0,3	0,5	-0,7	-1,1	0,1	1,1
- Enplegua (**)	-0,6	-6,7	-6,3	-7,2	-7,2	-6,1	-3,6

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Espainiako ekonomiaren hobekuntza lan merkatura ere iritsi zen. 2009ko lehen seihilekoan enpleguaren galerak bere goia jo ondoren, 2010eko lehen hiruhilekoan galdutako lanpostuen kopurua mugatuagoa izan zen, %-3,6, aurreko hiruhilabeteko datua baino bi puntu eta erdi txikiagoa delarik. Lehen arloan izan ezik, gainontzeko sektore guztietan enplegu gutxiago galdu

zen. Merkaturatzen ez diren zerbitzuek bakarrik areagotu zuten beren lanpostuen kopurua. Guztira, lanaldi osoko ia 652.000 lanpostu galdu ziren urtebete bateko epean. Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioa %1,8ra igo zen maiatzean, azken hilabeteetan petrolioak izan duen garestitzearen ondorioz. Dagoeneko zazpi hilabete eman ditu KPI indizea tasa positibotan, zortzi hilabetez beherakadak jaso eta gero.

Azkenik, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren arabera, administrazio publikoen defizita 8.908 milioi eurokoa zen 2010eko lehen hiruhilekoan, kontabilitate nazionalako terminoetan. Kopuru hori BPGren %0,85aren baliokidea da. Ehuneko horretatik, hiru hamarren abaguneko arrazoien ondorioak dira, hala nola autonomia erkidegoei emandako aurrerakinak eta enplegu zerbitzuei emandako transferentziak. Aurrekontuen egikaritzaren datu positiboa zergen bidezko diru sarreren eskutik etorri zen, %0,8 areagotu zirelako, bi urteko epealdian etengabeko jaitsierak jaso ondoren.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek EAEko ekonomiaz argitaratu dituen datuen arabera, barne produktu gordinaren aldakuntza tasa %-0,6 izan zen 2010eko lehen hiruhilekoan iazko epealdi beraren aldean, urte sasoiaren eta egutegiaren eragina zuzenduta duen seriean. Urte arteko datu horrek agerian uzten du EAEko ekonomiaren jaitsiera erritmoa azken hilabeteetan leundu dela. Hiruhilabete arteko terminoetan, BPGren hazkundea %0,1era mugatu zen eta dagoeneko bi hiruhilekoz jarraian tasa positiboak lortu ditu.

Barne eskariaren osagai guztiek, salbuespena administrazio publikoetako gastua delarik, jaitsiera tasa txikiagoak jaso zituzten. Errenta erabilgarriaren gehikuntza, ekonomia eragileen igurikimen baikorrak eta nazioarteko susperraldia dira barne eskariaren susperraldia lagundu duten faktoreetako batzuk. Orobat, EAEko merkataritza sarea osatzen duten herrialdeen hazkunde ekonomikoak esportazioen gorakada esanguratsua ahalbidetu du. Gorakada horri esker, kanpo eskariak BPGren hazkundeari egin zion ekarpena zertxobait areagotu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2010eko lehen hiruhilekoan, industria izan zen suspertzeko joera biziena erakutsi zuena, bere hazkunde tasa negatiboa oso nabarmen gutxitu zuelako. Beste behin, Europako ekonomien suspertzeak industriari lagundu dio bizkortzeko joera hori hartzen. Eraikuntzak beherakada handiko joera erakutsi zuen berriro eta 2009. urteko batez bestea baino are negatiboagoa den tasa bat jaso zuen. Balio erantsiaren hazkundeari egin

zioten ekarpen positibo bakarra zerbitzuen eskutik iritsi zen. Sektore horrek ez zuen ekarpenik egiten 2009ko lehen hiruhilekotik. Ekonomiaren suspertze txikia zerga garbien bilakaeran ere islatuta geratu zen, hazkunde tasa hutsala jaso baitzuten, bost hiruhilekoz jarraian beherakadak izan ondoren.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Barneko azken kontsumoa	2,2	-2,4	-2,1	-3,0	-2,9	-1,6	-0,3
- Familien gastua kontsumoan	1,6	-3,8	-3,7	-4,6	-4,3	-2,6	-0,6
- Herri admin. gastua kontsumoan	4,8	3,2	4,2	3,4	2,6	2,5	0,5
Kapital eraketa gordina	0,5	-8,3	-7,5	-9,4	-8,8	-7,5	-4,7
Barne eskaria	1,8	-4,0	-3,6	-4,7	-4,5	-3,2	-1,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,9	1,0	1,4	0,7	0,8	0,9
Esportazioak	4,1	-14,4	-13,1	-16,6	-16,1	-11,7	-1,7
Inportazioak	3,8	-14,7	-13,7	-17,1	-15,5	-12,1	-3,5
BPG (m.p.)	1,9	-3,3	-2,8	-3,7	-4,1	-2,5	-0,6
Lehen arloa	0,5	2,1	12,5	7,9	-0,9	-10,2	-19,5
Industria	-0,5	-9,5	-10,0	-10,3	-11,6	-5,9	-1,6
Eraikuntza	-1,1	-5,7	-5,5	-6,4	-6,2	-4,8	-6,5
Zerbitzuak	3,5	-0,1	0,8	-0,3	-0,4	-0,6	0,7
Balio erantsi gordina	1,9	-3,3	-2,7	-3,7	-4,1	-2,6	-0,7
Ekoizkinen zerga garbiak	1,8	-3,4	-3,6	-4,0	-3,8	-2,3	0,0

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera

Nekazaritza eta arrantzak biltzen dituen arloak beherakada bizia nozitu zuen 2010eko lehen hiruhilekoan, %-19,5ean estimatu dena. Hori da azken bost urtean jaso duen atzerakadarik handiena. Aurrekoaz gain, lehen arloak aurreko hiruhilabetearen aldean ere izan zuen bilakaerarik okerrean, hiruhilabete arteko tasa %-4,6ra iritsi zelako.

Industriak atzera egin zuen berriro 2010eko lehen hiruhilekoan eta %-1,6an kokatu zuen urte arteko aldakuntza tasa. Zeinu negatiboa oraindik erakusten duen arren, tasa horrek oso nabarmen hobetzen du 2009. urtean zehar lortutako emaitzak. EAEko industriaren gorakada hori bat dator azken hilabeteetan argitaratu diren abaguneko hainbat adierazlerekin. Autonomia erkidegoaren ingurunean agertu den ekonomia susperraldi ahulak, bereziki merkataritza alorreko europar bazkideen artean, industriak nozitu zuen beherakada biziarekin amaitzea ahalbidetu zuen.

Urratsez urrats lortzen ari den hobekuntza, beste adierazle batzuen artean, EAEko industria produkzioaren indizean hautematen da. Estatistika horren osagai guztiek, salbuespen bakarra energiaren atala delarik, aurtengo lehen hilabeteetan aurreko urteko epealdi berean baino portaera hobe erakutsi zuten. Azpimarratzekoa da ekipamendurako ondasunetan lortu den susperraldia, baina are biziagoa izan da bitarteko ondasunetan eta kontsumo iragankorrekoetan jasotakoa, 2010eko lehen hiruhilabeterako hazkunde tasa positiboak berreskuratuak baitzituzten. Aitzitik, energiaren ekoizpenak aldakuntza tasa negatiboak eta tamaina handikoak izan zituen. IPIren bilakaeraren analisia ekoizpen adarretan fokatzeko bada, bizitasun handiena erakutsi zuten atalak metalurgia eta artikulua metalikoak, garraio materiala, kautxua eta plastikoa, industria kimikoa eta janarien langintza izan ziren.


Hazkunde tasa hobetzen ari dela baieztatzen duten beste adierazle batzuk Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresarien iritziez osatzen duen inkestaren datuak dira. 2010. urteko lehen hiruhilekoan, industria giroaren indizea -35,3an kokatu zen, aurreko hiruhilabeterako emaitza ia sei puntuz hobetuz. Argitaratu den azken datua maitezekoa da eta hilabete horretan indizearen balioa -27,7ra igoa zen. Industria ekoizpenaren joera eta eskari zorroan hobekuntza nabarmenak gertatu dira, eta EAEko industrian amaitutako produktuen stockak behera egin du.

Eraikuntzak bi urte lehenago hasi zuen moteltzeko joera biziari jarraipena eman zion. Hiruhilabeteen behin argitaratzen diren kontu ekonomikoen arabera, sektore horretako balio erantsiaren urte arteko aldakuntza tasa %-6,5 izan zen, hiru hilabete lehenago %-4,8 jaso zuen bitartean. Lan merkatuaren narriadurak, kreditu bat emateko orduan ezarri diren irizpide zurrunez eta saldu gabe dauden bizitegi berrien kopurua garrantzitsuak oso eragin negatiboa dute etxegintzan. Beste aldetik, obra publikoari laguntzeko bideratu ziren egitasmoen amaierak eraikuntza zibilaren atzerakada eragin du. Bide horretatik doaz higiezin jardueraz eskura dauden adierazleak. Hain zuzen, eraikuntzaren koiuntura inkestaren arabera, bi atal nagusiek, hots, etxegintzak eta obra zibilak beherakada bizia nozitu zuten, hurrenez hurren, %-16,0 eta %-13,2.


Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Jabetza eskubideen eskualdatzeen datuek etxebizitzaren salmentak martxoan arte oso nabarmen areagotu direla adierazten dute. Urte arteko aldakuntza tasatan neurtuta, hobekuntza %23,0aren inguruan kokatu zen aurtengo lehen hiruhilekoan. 2010eko lehen hiruhilekoan, salmenten gehikuntza esanguratsuagoa izan da bizitegi libreetan eta erabilietan. Gehikuntza horren atzean, zergetan aurreikusita dauden aldaketak bezalako faktoreak egon daitezke, erosketak denboran aurreratzera animatu baitute. Halaber, finantza erakunde batzuek kanpaina garrantzitsuak egin dituzte ondasun higiezinak saltzeko, likidezia behar zutelako. Beste aldetik, etxebizitzaren salneurriek jaitsierak izan zituzten aurtengo lehen hilabeteetan eta horrek ere lagundu du bizitegien eskaria suspertzen.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010		
			I	II	III	IV	I	Apirila	Maiatza
Industria									
Balio erantsi gordina	-0,5	-9,5	-10,0	-10,3	-11,6	-5,9	-1,6	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	-3,8	-21,0	-23,4	-23,7	-22,2	-14,8	-1,3	-0,5	---
Industria giroaren indizea	-14,7	-47,6	-55,6	-54,1	-47,2	-41,0	-35,3	-25,4	-27,7
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	82,6	67,3	68,1	64,1	68,4	68,5	68,9	71,5	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,6	-7,8	-5,6	-8,3	-9,2	-8,1	-6,8	-5,4	-4,5
Eraikuntza									
Balio erantsi gordina	-1,1	-5,7	-5,5	-6,4	-6,2	-4,8	-6,5	---	---
Eraikuntzaren indizea	1,8	-12,8	-8,3	-12,6	-15,0	-14,6	-15,0	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-35,0	-24,6	5,0	-23,4	-38,3	-41,6	-31,2	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-25,6	-19,4	-21,2	-27,0	-11,8	-17,4	23,5	28,2	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,3	-6,6	-6,9	-8,3	-6,8	-4,4	-8,1	-6,7	-6,5
Zerbitzuak									
Balio erantsi gordina	3,5	-0,1	0,8	-0,3	-0,4	-0,6	0,7	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	-4,7	-13,5	-24,5	-16,5	-8,2	-4,8	6,5	2,8	7,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,2	-2,1	-16,5	1,5	3,4	3,1	10,9	7,5	11,0
Hoteletako okupazioa	43,9	41,3	30,6	42,7	54,3	37,7	31,5	41,6	44,4
Negoio zifren indizea	0,2	-13,0	-14,3	-18,5	-13,3	-5,9	0,7	4,0	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,3	-0,6	-0,1	-1,0	-0,5	-0,7	0,2	0,8	1,1

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Hipoteken estatistika aztertzen denean ere, higiezinaren merkatua zertxobait suspertu dela ondorioztatzen da. Etxebizitzak erosteko EAEn eratu ziren hipoteken kopurua eta

salerosketak egiteko maileguan eman den diru kopurua oso nabarmen areagotu ziren martxoa arte. Hala eta guztiz ere, aldagai horien bilakaera zuhertasunez hartu behar da eta datozen hilabeteetako datuei adi egon behar da, hobekuntza hori benetako joera bat den edo hurrengo hilabeteetan zerga sisteman ezarriko diren aldaketak direla-eta kontsumitzaileak eman duen erantzuna den argitzeko.

Balio erantsi gordinaren hazkundeari 2010eko lehen hiruhilekoan ekarpen positiboa egin zion arlo bakarra zerbitzuak izan ziren. Sektore horrek %0,7ko urte arteko aldakuntza tasa lortu zuen, hots, aurreko hiruhilabetekoa baino puntu bat inguru gehiago. Bizitasuna merkaturatzen diren zerbitzuen eskutik iritsi zen, %0,6 hazi baitziren, merkatura ez doazen zerbitzuek moteltzeko joera arina erakutsi zuten bitartean, %1,3ko urte arteko hazkundea lortuta.

Hirugarren sektoreaz eskura dagoen epe laburreko informazioak zantzu positiboak eskaintzen ditu 2010eko lehen hilabeteetarako. Turismoari buruzko inkestatik eratorritik diren datuek adierazten dute Euskadiko erkidegoa bisitatu zuten turisten kopuruak eta hoteletan emandako gaualdiek gorakada esanguratsuak izan zituztela. Ostatuaren betetze maila %31,5 izan zen, aurreko urteko epealdi berean lortutako maila ia puntu oso bat gaituz. Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, bidaiarien aireko trafikoa ere bat egin du suspertzeko joera horrekin, lehen hiruhilabeteko batez besteko hazkunde tasa %6,5 izan zuelako.

Merkataritzari dagokionez, Eustatek osatzen duen barne merkataritzako indizearen emaitzek gehikuntza tasak jaso zituzten hala salmentetan nola landunen kopuruan. Azkenik, enplegua aztertzen duten estatistika iturri gehienak bat datoz zerbitzuen egoera ona dela adierazteko orduan. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, bilakaera hedakorra islatzen duten adarrak honako hauek dira: lanbide, zientzia eta teknika jarduerak, ostalaritza, hezkuntza, osasun alorreko jarduerak eta gizarte zerbitzuak.


Eskariaren osagaiak

Barne eskariaren osagaien artean, azken kontsumoko gastua %0,3 baino ez zen jaitsi 2010eko lehen hiruhilekoan, hots, agregatu horrek azken bost hiruhilabeteetan izan duen daturik onena. Azpimarratzekoa da administrazio publikoen gastua %0,5 baino hazi ez izana, erakundeek gastu publikoa gutxitzeko bideratu dituzten neurrien ondorioz. Beste aldetik, familien kontsumoak urte arteko tasa negatiboa (%-0,6) jaso zuen berriro, baina bi puntuko susperraldia izan zuen aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Kontsumitzaileak konfiantza berreskuratzen ari dira, baina oso astiro eta zalantza askorekin. Ekonomiaren etorkizuneko nondik norakoaz informazio kontrajarri asko jasotzen ari dira, baina, oro har, adierazleen bilakaerak familien kontsumoak aurtengo lehen hilabeteetan izan duen hobekuntza txikia islatzen dute. Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak osatzen duen kontsumitzailearen konfiantza indizeak suspertzeko joera arina baieztatzen du EAerako, 2008ko bigarren hiruhilabeteen jaso zuen gutxieneko baliotik abiatuta. Hala eta guztiz ere, 2010eko lehen hiru hilabeteetarako, adierazle horrek atzera pausu bat eman zuen, langabeziaren bilakaeraz zeuden igurikimenak okertu zirelako. EAEko familiek zalantza asko dituzte ekonomiaren etorkizunaz eta aurrezteko igurikimenak maila altuetara iritsi dira. Mesfidantzak eta ziurgabetasunak, alde batetik, eta lan merkatuari buruzko aurreikuspen ezkorrek, beste aldetik, inbertsio handiak egiteko probabilitate indizea maila baxuetan mantendu dute.

Beste adierazle batzuek, hala nola txikizkako merkataritzaren indizeak, azalera handietako salmentek eta EAEn matrikulatutako turismoek, familien kontsumoa urtariletik martxora bitartean areagotu zela iradokitzen dute.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010		
			I	II	III	IV	I	Apirila	Maiatza
Kontsumo pribatua									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	1,6	-3,8	-3,7	-4,6	-4,3	-2,6	-0,6	---	---
BMI txikizkaria	-2,8	-3,9	-8,0	-3,8	-2,0	-2,0	4,4	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-4,0	-1,6	-4,0	-3,3	-0,7	1,8	3,4	3,3	2,7
Landunak txikizkarian	1,1	-3,2	-2,4	-3,0	-3,2	-3,2	0,0	---	---
Automobilen matrikulazioa (*)	-20,1	2,7	-24,2	-16,5	15,4	36,2	32,8	35,7	36,5
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	79,5	75,6	70,0	67,0	72,0	93,0	81,0	---	82,0
Kapital eraketa gordina									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,5	-8,3	-7,5	-9,4	-8,8	-7,5	-4,7	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-2,4	-29,1	-25,6	-29,2	-40,7	-21,0	-5,5	-2,5	---
IPI ekipamendua Estatua (*)	-9,8	-22,0	-26,3	-26,5	-25,0	-10,1	-5,7	-4,3	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	-1,1	-31,0	-41,8	-31,9	-24,4	-25,8	0,4	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-39,9	-35,6	-47,6	-46,8	-35,6	-12,3	5,4	8,7	9,5

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapitaleko eraketa gordinak beste ekarpen negatiboa egin zion barne eskariaren hazkundeari, nahiz eta aurreko hiruhilabeteetako baino askoz ere txikiagoa izan zen. Aldagai horren hazkunde tasa, urte sasoiaren eta egutegiaren eragina zuzenduta, %-4,7 izan zen, 2009ko laugarren hiruhilabetekeo emaitza ia hiru puntu hobetuz. Hobekuntzarako urrats hori inbertsioaren adierazleetan, eta bereziki ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan, islatuta geratu zen. Izan ere, industria produkzioaren indizeak, ekipamendurako ondasunen atalean, hazkunde tasa negatiboak jaso zituen aurtengo lehen hiruhilekoan, baina suspertzeko joera garbia erakutsiz. Ekipamendurako ondasunen inportazioak, berriz, oso bilakaera ona izan zuen eta epealdi berean %0,4ko tasa positiboa lortu zuen. Orobat, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak suspertzeko joerari eutsi zion, %5,0aren inguruko hazkunde tasak lortuta, aurreko urteetan izandako emaitzen aldean balio garrantzitsuak direlarik. 2010eko lehen hilabeteetan, enpresen testuinguruak ziurgabetasun handiko giroan murgilduta jarraitu zuen eta finantza erakundeek ezartzen dituzten baldintza zorrotzei aurre egin behar diete. Hala ere, ingurunekeo ekonomien susperraldiak EAEko inbertsioaren narriadurari amaiera emateko lehen pausua ekarri du.

Kanpo saldoa

Nazioarteko merkataritzak 2008ko amaieran eta 2009ko hasieran pairatu zuen beherakada bortitzaren ondoren, ondasunen salerosketak suspertzeko zantzu garbiak eskaini zituen. 2010eko lehen hilabeteetan, joera hori areagotu zen eta herrialde esportatzaile nagusien salmentek oso hazkunde tasa esanguratsuak lortu zituzten, Txina buruan dutela, garapen bidean dauden herrialdeen bizitasun sendoak bultzatuta.


Hain zuzen ere, eta Munduko Merkataritzaren Antolakundeak argitaratu dituen lehen estimazioen arabera, merkataritzako salmenten balioa %25aren inguruan hazi zen 2010eko lehen hiruhilekoan. Zehazkiago adierazita, munduko esportazioak %27 hazi ziren eta inportazioak, berriz, zertxobait gutxiago, %24aren inguruan.

Txinak munduko esportatzailerik handienaren tokia kendu zion Alemaniari apirilean eta %30,5 areagotu zituen bere salmentak. Beraz, bost hilabetez jarraian bi zenbakiko gehikuntza tasak lortu ditu. Lau urteko epe laburrean, ekonomia horrek puntu batean handitu du munduko esportazioen guztizkoan duen pisua, 2006ko urtarrilean zuen %4,4tik 2010eko apirilean lortu zuen %5,4ra. Txinako eskariaren sendotasunaz ondo baliatu zen Japonia eta modu harrigarrian areagotu zituen bere esportazioak 2010. urtean. Izan ere, urtarritetik apirilera bitartean, esportazioen batez besteko hazkundeak %40 gainditu zuen, 1980. urtetik hango salmentek inoiz izan duten tasarik gorena baita.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

7. Irudia


Txina




Alemania



AEB



Japonia



Iturria: Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila, Txinako Bankua eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Gainontzeko herrialde aurreratueta ere, merkataritzaren lehengoratzeara oso nabarmena izan zen, nahiz eta suspertzeko erritmoa zertxobait apalagoa izan zen. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko esportazioak %13,5 hazi ziren, Alemaniako, Frantziako eta Herbehereetako esportazioen bultzadari esker –hiru herrialde horiek eremu oso esportazioen ia %50 biltzen dute-. Hazkunde tasa horiek Txinarena edo Japoniarena bezain apartak ez badira ere, oso garrantzitsuak dira, atzeraldia hasi baino lehenagoko hedatze aldiari jasotzen ziren gehikuntzak berdindu dituztelako.

EAEko ekonomiak bat egin zuen merkataritza fluxuen susperraldiarekin eta 2010eko lehen hiruhilekoan 2008ko udatik inoiz jaso duen emaitzarik onenak lortu zituen. EAEko merkataritza bazkide nagusien hobekuntzak %7,3ra gorarazi zituen esportazioak. Tasa hori historian zehar lortutakoa baino zertxobait apalagoa da, baina azken hamarkadetakoa atzeraldirik larriena atzean geratu dela baieztatzeko balio du. Inportazioek ere suspertzeko joera berreskuratu zuten eta bost hiruhilekoz jarraian bi zenbakiko jaitsierak jaso ondoren, %13,3 hazi ziren. Azken hauen hazkunde tasa handiagoa den arren, ez zen iritsi esportazioen baliora eta, horren ondorioz, merkataritza saldoan superabita lortu zen berriro, 424 milioi euroen ingurukoa. Energiaz bestelako fluxuek antzeko joera erakutsi zuten, baina hazkunde tasa biziagoekin, eta atal horretako saldoa 1.387,2 milioi euroan kokatu zen.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2010-I
	2008	2009	2009				2010	
			I	II	III	IV	I	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	6,3	-26,6	-26,0	-35,9	-30,2	-11,1	7,3	3.787.382
Energetikoak	22,6	-30,8	-46,9	-44,0	-34,2	25,8	-36,9	151.000
Ez energetikoak	4,9	-26,1	-23,9	-34,9	-29,8	-13,7	10,5	3.636.382
INPORTAZIOAK								
Guztira	6,4	-38,9	-41,4	-47,0	-43,4	-18,3	13,3	3.363.802
Energetikoak	22,9	-40,9	-40,8	-51,2	-47,1	-9,7	8,6	1.114.655
Ez energetikoak	-0,8	-37,8	-41,7	-44,4	-40,9	-21,7	15,7	2.249.147

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Esportazioen gorakada garrantzitsuaren oinarrian, atal nagusien susperraldi nabarmena dago, hau da, ekipamendurako ondasunena eta metal arruntak eta beren manufaktura, bereziki burdinaren eta altzairuaren galdaketak, aluminioak eta kobreak izan zuten gehikuntzari esker. Kontsumo pribatuak Frantzia, Alemanian, Italian eta Erresuma Batuan izan zuen hobekuntzak eta inbertsioaren beherakada txikiagoa izateak salmentak areagotu zituzten eta bi atal horiek jaitsierak atzean uztea ahalbidetu zuten. Izan ere, arantzel sekzio guztiek, salbuespena nekazaritzako eta energia ekoizkinak izan zirelarik, tasa positiboak berreskuratu zituzten.


Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

8. irudia


Energiako ondasunen esportazioak




Energiako ondasunen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. esportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko kontsumoaren hobekuntzak eta kapital eraketa gordinaren jaitsiera txikiagoak inportazioen gehikuntza nabarmena eragin zuten. Beste behin, metal arrunten -%40 baino gehiago hazi ziren- eta ekipamendurako ondasunen norabidea erabakigarria izan zen inportazioen bilakaera zehazteko, krisia sortu aurreko erritmoan hazi baitziren. Garraio materiala izan zen tasa negatibotan jarraitu zuen bakarra, ibilgailu automobilen salmentak gutxitu zirelako. Hala ere, hobekuntza garrantzitsua lortu zuen 2009an izan zuen gehienezko beherakadaren aldean ia berrogei puntu berreskuratu zituelako.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZA EZ-ENERGETIKOAREN HELBURUA ETA JATORRIA 10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2010 I
	2008	2009	2009				2010	
			I	II	III	IV	I	
Esportazioak								
ELGE	3,3	-30,5	-28,8	-39,0	-31,2	-20,4	3,2	2.589.211
Eurogunea	4,0	-32,8	-33,5	-40,1	-33,2	-21,5	12,0	1.900.330
Europako kide berriak	7,9	-27,1	-45,5	-28,1	-17,3	-14,2	19,0	161.328
Europar Batasuna 27	3,3	-32,6	-35,4	-40,7	-32,5	-18,1	9,3	2.251.178
Errusia	50,4	-47,8	-53,4	-53,2	-61,8	-14,4	46,4	31.626
Txina	33,6	-33,8	-20,0	-40,2	-46,3	-27,9	1,1	75.361
Brasil	13,4	-25,3	-26,7	-46,7	-35,6	6,8	64,9	93.267
Inportazioak								
ELGE	-2,5	-34,5	-43,4	-41,2	-33,7	-16,5	18,9	1.689.187
Eurogunea	-1,7	-34,4	-46,6	-40,4	-32,7	-13,5	19,3	1.238.725
Europako kide berriak	9,2	-28,9	-26,3	-42,0	-26,5	-18,5	15,7	86.888
Europar Batasuna 27	-3,1	-35,2	-46,5	-42,0	-34,5	-13,6	24,3	1.505.837
Errusia	5,5	-63,7	-44,4	-76,7	-75,7	-35,0	19,2	70.984
Txina	-2,3	-36,2	-27,9	-37,3	-42,6	-37,5	-6,8	199.915
Brasil	-1,9	-60,7	-59,1	-78,0	-86,2	35,9	36,9	24.486

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ikuspegi geografiko batetik, Euskadik esportatu zituen energiaz bestelako ondasunen %62aren inguru Europar Batasunera bidali zen. Beraz, eremu horren bilakaerak, neurri handi batean, salmenten nondik norakoa baldintzatu zuen. Hain zuzen ere, aurrekaririk ez zuten bost hiruhilabeteko beherakaden ondoren, Europar Batasuneko helburuak hazkunde positiboak berreskuratu zituen. Alemaniaren, Frantziaren eta Italiaren jarduera suspertu izanak Europara zuzendutako energiaz bestelako salmentak %9,3 areagotu zituen, Erresuma Batuko merkatuan

gutxiago saldu zen arren. ELGEko gainontzeko herrialdeetan, Japoniako ekonomiaren sendotasuna bertako erosketetan hauteman zen, %22,1 biziagotu zirelako. Estatubatuar merkatuak, ordea, erdira murriztu zuen aurreko beherakada erritmoa, euroa ahul zegoen arren. ELGE erakundetik kanpo, salmentak Errusian, Brasilen eta, neurri txikiagoan, Txinan hazkunde tasa positiboetara itzuli ziren eta, kasu batzuetan, bi zenbakiko gehikuntzak lortu ziren. Igoera horri esker, EAEko produktuek bere kokatzea hobetu zuten garapen bidean dauden merkatu horietan.

Energiakoak ez diren inportazioen bilakaera are biziagoa izan zen. EAEko ekonomiaren hobekuntza erosketen erritmoan islatu zen eta merkataritzako bazkide ohikoenak eta hurbilenak izan ziren etekin handiena atera zutenak. Izan ere, Europar Batasunetik iritsi ziren energiaz bestelako inportazioak %24aren inguruan hazi ziren. Horrelako tasarik ez zen ezagutzen gutxienez 2000. urtetik. ELGEko gainontzeko herrialdeetan ere joera baikorra lortu zen, baina hazkunde positiboak ezin izan ziren herrialde guztietan lortu. Esportazioetan ez bezala, AEBetan erositakoak lortu zuen gehikuntza tasarik handiena eta, aitzitik, Japoniatik inportatutakoak oraindik ez zuen gorakadarik izan. Merkatu berrietan, Errusiak eta Brasilek berriro lortu zituzten hazkunde garrantzitsuak, baina Txinatik inportatutakoak tasa negatibotan jarraitu zuen, jantzien eta beraren osagaien erosketak zein burdinaren galdaketaren manufakturenak gutxitu zirelako.

Lan merkatua

2010eko lehen hiruhilekoan, lan merkatuak narriadura erritmoa gutxitzen jarraitu zuen, hala enpleguan nola langabezian. Izan ere, enpleguaren zenbatekoak estimatzen dituzten estatistika nagusiak bat etorri ziren galdutako lanpostuen kopurua aurreko hiruhilabeteetakoa baino nabarmen txikiagoa izan zela adierazteko orduan. Orobat, langabezia tasak goranzko norabidea leundu zuen eta egonkortasunera hurbildu. Are gehiago, BAI inkestaren arabera langabezia tasak nabarmen egin zuen behera.


Hain zuzen ere, lan merkatua aztertzen duten epe laburreko adierazle guztiek 2010eko lehen hiruhilekoan enplegu galera askoz ere txikiagoa izan zela seinalatzen dute. Zehazkiago adierazita, estatistika horien muturretako balioak BAIren %-1,4tik (aurreko hiruhilekoan %-5,2 estimatu zuen) Gizarte Segurantzako afiliazioaren %-2,1era doaz. Tarteko tokietan Eustaten bi estatistikak kokatzen dira. Batean, BJA inkestak %1,5eko jaitsiera estimatu zuen, beste inkestak eman zuen baliotik oso hurbil. Bestean, kontu ekonomikoek zertxobait zabaldu zuten beherakada hori %-1,9ra arte. Edozein modutan, estatistika guztietan gutxienez puntu bateko

hobekuntza hauteman da aurreko datuaren aldean. Bigarren hiruhilabeterako eskura dagoen informazioak enplegua egonkortzeko prozesuak aurrera jarraitu duela iradokitzen du. Esate baterako, maiatzeko afiliazioak %-0,8ra murriztu zuen afiliatuen kopuruaren urte arteko beherakada.


Enplegu estatistiken bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Oro har, ekoizpen arlo guztiek aurreko hiruhilabeteetako jaitsiera tasak gutxitu zituzten. Kontu ekonomikoetan argitaratu zen informazioaren arabera, zerbitzuek bakarrik utzi zituzten atzean urte arteko aldakuntza tasa negatiboak, baina ez ziren gai izan enplegua sortzeko. Industriak

hobekuntzako zantzuak erakutsi zituen, baina lanpostuen galera garrantzitsua nozitu zuen berriro, %6,0aren ingurukoa baitzen. Eraikuntzak aurreko hiruhilabeteetako beherakada nabarmen leundu zuen eta urte arteko aldakuntza tasa %-5,4an utzi zuen eta etxebizitzaren salmenta areagotu den arren, sektorean ez da hobekuntza zantzu garbirik hautematen.

Afiliazioan argitaratu diren azken datuek (maiatzekoek) zerbitzuetako hainbat adarretan, hala merkatuko zerbitzuetan nola administrazioari lotutako zerbitzuetan, enplegu sorrera sendotzen ari dela seinalatzen dute. Hain zuzen ere, urte arteko gehikuntza garrantzitsuak lortu dira ostalaritzan (%4,3), higiezin jardueretan (%3,6) eta jarduera artistiko eta aisialdikoetan (%1,6), beste adar batzuen artean. Beste aldetik, osasun arloan (%4,9), hezkuntzan (%2,4) eta administrazio publikoan (%2,0) ere tasa esanguratsuak lortu dira. Hala ere, administrazioak onartu dituen hersturako neurriek adar horien hedapena arlo publikoan galaraziko dute.

Kontu ekonomikoetan kalkulatu zen enplegu galera (%-1,9) estatistika berak barne produktu gordina argitaratu zuen datuarekin (%-0,6) konbinatuta, ekoizkortasun irabazia 1,3 puntura iritsi zela ondorioztatzen da. Beraz, aurreko hiruhilabeteetako balioa nabarmen areagotu zen aurtengo lehen hiruhilekoan.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Enplegua guztira	1,0	-3,5	-3,0	-4,2	-3,9	-3,1	-1,9
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	0,9	0,2	0,2	0,5	-0,2	0,6	1,3
Enplegua lehen arloan	-1,6	-3,9	-5,2	-4,9	-4,2	-1,3	3,1
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	2,1	6,2	18,7	13,5	3,4	-9,0	-21,9
Enplegua industrian	-0,3	-6,7	-5,2	-7,3	-7,7	-6,8	-6,0
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	-0,2	-3,0	-5,1	-3,2	-4,2	1,0	4,7
Enplegua eraikuntzan	-3,1	-9,9	-10,1	-10,3	-11,3	-7,6	-5,4
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	2,1	4,7	5,1	4,3	5,7	3,0	-1,2
Enplegua zerbitzuetan	2,2	-1,3	-1,0	-2,1	-1,2	-1,0	0,0
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,3	1,2	1,8	1,8	0,8	0,4	0,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Sektoreen portaera oso ezberdina izaten ari da. Alde batetik, industriak langileen kopuruari eusteko hautua egin zuen lehen unean, zikloak hoberantz egingo zuen arte. Horren ondorioz,

arlo horretako ekoizkortasunak behera egin zuen, 2009ko batez bestean %3,0 galduz. Hala ere, iazko azken laurdenean eta are gehiago aurtengo lehen hiruhilekoan, aldagai horren portaera osorik aldatu da, orain oso positiboa (%4,7) delako. Izan ere, industriaren ekoizpenak suspertzeko joera bizia hartu duen arren, enplegua galtzen jarraitzen du. Oso bestelakoa izan da eraikuntzaren portaera. Arlo horretan, berehala gauzatu zen enpleguaren doikuntza, ekoizkortasuna azkar areagotuz, baina lanpostuen galera leundu da, ekoizpena gero eta txikiagoa den arren.

Enpleguaren galera generoaren arabera egiten denean eta BJA inkestaren datuak erabilita, 2010eko lehen hiruhilekoan galdu ziren 14.300 lanpostuetatik gehienak (hamarretik bederatzi) gizonek betetzen zituztela egiaztatzen da. Enplegu tasan neurtuta, gizonek bederatzi hamarren galdu zituzten (%57,7) eta emakumeek, berriz, hamarren bakar bat (%43,8). Era berean, enpleguaren galerak eragin handiagoa izan zuen biztanleria gazteenaren kolektiboan, bere enplegu tasa zazpi hamarren gutxitu baitzen, eta bitarteko biztanlerian, puntu erdi bat galdu baitzuen epealdi berean.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

12. TAULA

Ehunekoa

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Partaidetza tasa guztira	55,3	55,6	55,7	55,3	55,4	55,8	55,5
- Gizonak	64,5	64,0	64,1	63,6	64,0	64,2	63,5
- Emakumeak	46,7	47,6	47,8	47,4	47,3	47,9	47,9
- 16 urtetik 24ra	34,6	32,0	32,8	31,4	31,4	32,5	31,3
- 25 urtetik 44ra	86,5	87,6	88,2	87,5	87,0	87,8	87,2
- 45 urte eta gehiago	37,6	38,1	37,8	37,8	38,3	38,5	38,7
Enplegu tasa guztira	53,3	51,0	51,4	50,9	50,8	51,0	50,6
- Gizonak	62,3	58,6	59,2	58,5	58,1	58,6	57,7
- Emakumeak	44,7	43,9	44,0	43,8	43,9	43,9	43,8
- 16 urtetik 24ra	31,2	24,7	26,0	25,0	23,5	24,3	23,6
- 25 urtetik 44ra	82,9	79,8	80,5	79,8	79,6	79,4	78,9
- 45 urte eta gehiago	36,8	36,3	36,2	36,1	36,2	36,6	36,5
Langabezia tasa guztira	3,8	8,1	7,7	7,8	8,3	8,7	8,9
- Gizonak	3,4	8,4	7,6	8,0	9,1	8,8	9,1
- Emakumeak	4,2	7,8	7,9	7,6	7,2	8,5	8,6
- 16 urtetik 24ra	9,9	23,0	20,8	20,5	25,3	25,4	24,8
- 25 urtetik 44ra	4,1	8,9	8,7	8,7	8,5	9,6	9,6
- 45 urte eta gehiago	2,3	4,8	4,2	4,5	5,5	4,9	5,6

Iturria: BJA (Eustat).

Enpleguaren galerak kalte egin dio lan merkatuaren partaidetzari, hilabete askoan etengabe igo ondoren, 2010eko lehen hiruhilekoan beherakada arina (%-0,3) jaso zuelako. Biztanleria parte hartzailearen moteltzearen eta jaitsieraren arrazoiak langabe batzuek enplegua bilatzeko orduan intentsitatea galdu izana, immigrazioaren presioa txikiagoa izatea eta langile gazteenak hezkuntza sistemara itzuli izana dira. Generoaren arabera portaera ezberdina hauteman da, zeren eta gizonak baitira lan merkatua uzten ari direnak (%-0,7), emakumeak bertan parte hartzen jarraitzen ari diren bitartean (%0,3). Erabaki horiek oso lotuta daude kolektibo bakoitzaren lanbidea egiten den adarrekin. Izan ere, emakumeek nagusiki zerbitzuetan lortzen dute lanpostua eta zerbitzuak enplegua eskaintzen ari dira dagoeneko. Aitzitik, gizonak gehiengo dira industrian eta eraikuntzan eta bi sektore horiek oraindik beren enplegua gutxitzen ari dira.

Enpleguaren eta biztanleria parte hartzailearen bilakaeren ondorioz, lanik gabeko pertsonen kopurua, BJAren arabera, 11.800 lagunetan areagotu zen azken urtebetean, guztira 91.800 langabe zeudelarik. BAI inkestak zenbateko handiagoa estimatu zuen, baina bilakaerak beheranzko norabidea hartu duela agerian utziz. Zehazkiago, azken hiruhilekoan langabeen kopurua 10.000 pertsonatan murriztu zela adierazi zuen. Langabezia tasari dagokionez, Eustaten inkestak egonkortzeko joera erakutsi zuen eta INEren estatistikak ia puntu oso bat gutxitu zuen aurreko hiruhilabeteko emaitza.

LANGABEZIAREN BILAKAERA

13. TAULA

Mila lagun eta tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Langabeak BJA inkestaren arabera	38,6	84,2	80,0	80,7	85,5	90,4	91,8
Langabeak BAI inkestaren arabera	68,6	115,6	108,6	110,0	120,7	123,1	113,7
Langabeak INEMen erregistroetan	84,6	120,5	115,6	119,0	120,1	127,1	137,0
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	3,8	8,1	7,7	7,8	8,3	8,7	8,9
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	6,4	11,0	10,3	10,5	11,6	11,8	10,9


Iturria: Eustat, INE eta INEM.

BJAk estimatu zuen langabezia tasaren analisiak iradokitzen du EAEko ekonomiaren portaera eta Europar Batasunaren batez besteara oso antzekoak direla, zeren eta tasa horien aldakuntzak nahiko txikiak baitira. Izan ere, hala Euskadin nola Europar Batasunean tasa hori bi hamarren bakarrik igo zen 2010eko lehen hiruhilekoan, bi lurraldeen arteko tartea zazpi

hamarrenetan mantendu zelarik. Zenbateko horiek oso urrun daude espainiar ekonomiaren egoeratik, bertan eta epealdi berean langabezia tasa %20,0an baitzegoen.

Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Aipatu diren estatistiken analisitik eratortzen den lan merkatuaren narriadura txikiagoa bat dator enplegua erregulatzeko dossierren datuekin. Hain zuzen ere, 2010eko lehen hiruhilekoan, 12.073 langile zeuden dossier baten eraginpean, aurreko hiruhilabetekoak baino askoz ere gutxiago direlarik. Urte arteko tasan %71ko jaitsiera gertatu da. Hala eta guztiz ere, eta enplegua erregulatzeko dossier gehienak aldi baterakoak diren arren, lanaldia behin-behinekoz eteteko hainbat dossier kontratua amaitzeko dossier bihurtzen ari dira. Bilakaera hori argi eta garbi ikusten da lehen hiruhilabeteko datuetan, kontratuari amaiera emateko modalitatean aurreko hiru hiruhilabeteko emaitzak gainditzen baitziren. Dena dela, apirileko (95 langile) eta maiatzeko (106 langile) datuek pentsarazten dute bigarren hiruhilabeteko emaitza ez dela horren negatiboa izango.

Azkenik, enpleguaren doikuntza aldi baterako soldatapekoen zein kontratu mugagabea duten langileen bizkar egin zen berritua, baina lehenengoek beherakada handiagoa pairatu zuten. Zehazkiago adierazita, aldi baterako soldatapekoen kopurua 6.800 langiletan murriztu zen, urte arteko tasa %-4,4 izan zelarik. Kontratu finkoa zutenena, berriz, 4.600 lagunetan jaitsi zen, %0,7ko beherakada jasota. Aurreko guztiaren ondorioz, aldibaterakotasun tasa bi

hamarrenetan igo zen hiruhilabeteen eta %18,8an kokatu, urtean puntu erdi bateko jaitsiera pilatuz.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

14. TAULA

	2008	2009	2009				2010	
			I	II	III	IV	I	Maiatza
Dosierren kopurua	496	2.565	612	770	492	691	683	149
Eragindako langileak	12.794	68.722	21.645	19.399	10.020	17.658	12.073	1.721
<i>Dosier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	108	1.170	579	323	124	144	149	30
- Behin-behineko etetea	11.216	65.574	20.382	18.719	9.428	17.045	11.434	1.585
- Kontratua amaitzekoa	1.470	1.978	684	357	468	469	490	106

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen adierazleek gorakada izan zuten 2010eko lehen hilabeteetan, energiaren salneurriek nazioarteko merkatuetan izan zuten bilakaerak baldintzatuta. Izan ere, KPIren aldakuntza tasak gora egin zuen 2010eko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteko datua bost hamarrenetan gaituz, %0,5etik %1,0ra igarota. Joera horrek jarraipena izan zuen hurrengo hilabeteetan eta maiatzean, argitaratu den azken hilabetea baita, urte arteko tasa %1,7ra iritsi zen. Hala ere, ezin da esan inflazioaren gorakada denik, energiaz landa indize orokorraren gainontzeko osagaietan ez baita inolako tentsiorik hauteman eta azpiko inflazioa oso egonkor dago maila bereziki apaletan. Beste aldetik, 2009an gertatu zen bezala, prezioek antzeko bilakaera dute Euskadin eta Eurogunean, bi lurralde horien arteko inflazio tarte hutsala izaten jarraituz.

Zehazkiago adierazita, energiaren prezioak %10,6 igo ziren erreferentziako epealdian urte arteko tasan, 2009ko laugarren hiruhilekoan %1,1 hazi ziren bitartean. Orobat, erregaien atalaren urte arteko tasa %13,2ra iritsi zen. Azpimarratu behar da osagai horren goranzko joera, neurri handi batean, bi faktorek eragin zutela: alde batetik, petrolio gordinaren kotizazioa nazioarteko merkatuetan kontuan hartu behar da eta, beste aldetik, euroak dolarren aldean izan zuen truke tasa. Izan ere, Brent motako upelaren salneurria dolarretan hainbat hilabete egon da aldaketa gutxiarekin 75 eta 80 dolarren artean, aurreko urteko prezioa 40 eta 50 dolarren arteko muga artean zegoen bitartean. Halaber, azken sei hilabeteetan


euroak bere balioaren %14 galdu du dolarraren aldean, petrolioaren eta gas naturalaren inportazioen faktura garestituz.

KPIren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasak

11. irudia

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Bitartean, KPIren gainontzeko osagaiek beren salneurriak gutxi garestitzeko joera garbia erakutsi zuten. Izan ere, azpiko inflazioak hamarren gutxi batzuetara mugatu zituen bere urte arteko igoerak eta maiatzean %0,4an kokatu zen tasa hori, hots, indize orokorraren balioaren oso azpitik. Elikagaien prezioek, berriz, oso aldakuntza tasa apalak jaso zituzten, hala landutako elikagaien atalean, iazko hirugarren hiruhilabeteko %0,7tik aurtengo lehen hiruhilabeteko %0,1era igaro baitzen, nola elikagai freskoetan, tasa negatibotan (%-1,7) jarraitu baitzuten. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilabeterako ezagutzen diren hilabeteetan salneurrien nolabaiteko gorakada hauteman da, kontsumo pribatuaren susperraldiaren ondorioz, euroaren balio galeraren ondorioz inportazioak gero eta garestiagoak diren testuinguru batean.

KPI indizean barne hartzen diren industria ondasunek atzean utzi zituzten 2009ko merkatzeak eta aurtengo lehen bost hilabeteetan bizkortze nabarmena jaso zuten. Munduko merkataritzaren suspertzeak eta, berarekin batera, kanpo eskariaren igoerak eragin dute prezioen igoera hori. Zerbitzuek, berriz, salneurrien igoerak apaltzeko joerari eutsi zioten eta urte arteko aldakuntza tasa %1aren inguruan kokatu zuten. Sektore horrek prezioak

kontrolatzeko izan dituen zailtasunak kontuan hartuta, gaur eguneko tasak oso esanguratsuak dira.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2008	2009	2009	2010		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazioa guztira (%100)	4,1	0,3	0,5	1,0	1,7	1,7
Azpiko inflazioa (%83,9)	3,2	1,1	0,4	0,2	0,4	0,3
KPI Landutako elikagaiak (%13,3)	6,6	1,2	0,7	0,1	0,8	0,1
KPI Industriako ondasunak (%28,8)	0,6	-0,9	-1,5	-1,2	-0,7	-0,2
KPI Zerbitzuak (%41,7)	3,9	2,5	1,7	1,1	1,1	0,4
Hondarreko inflazioa (%16,1)	8,5	-3,6	0,6	5,2	8,3	1,4
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,9)	5,0	0,2	-0,7	-1,7	-0,2	0,0
KPI Energia (%9,2)	11,6	-7,3	1,1	10,6	14,8	1,4

Iturria: INE.

Analisia taldeka egiten denean, KPI indizean tentsiorik ez dagoela baieztatuta geratzen da, zeren eta indize orokorra osatzen duten hamabi taldeetatik lauk urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasotzen jarraitzen dute eta beste bostek %2ko helburua ez dute gainditzen. Beraz, goranzko presioak hiru taldetara mugatzen dira. Urte arteko tasa handienak (%11,9) edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituen taldearenak dira, tabakoaren gaineko zergak igo zirelako. Beste bi taldeak, hots, garraioa (%7,3) eta etxebizitza (%3,1) oso lotuta daude energiaren prezioei, lehenengoan erregaiak barne hartzen direlako eta bigarrean berogailuetarako gasolioa barruan dagoelako. Beraz, oso gorabeheratsuak diren ekoizkinen portaeratik eratorri diren gehikuntzak dira.

Beste muturrean, aisialdia eta kultura (%-1,5), komunikazioak (%-1,1), elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%-0,9) eta jantziak eta oinetakoak (%-0,3) taldeen portaera azpimarratu behar da, horiek guztiek beren salneurriak iazko prezioen aldean merkatu dituztelako. Halaber, nabarmendu behar dira medikuntza taldearen bilakaera (%0,3), prezioen jaitsierak atzean utzi dituen arren, eta etxeko tresneriarena (%0,9), bietan gehikuntza tasa ez delako %1era iristen. Beste hiru taldeek, hots, irakaskuntzak, ostalaritzak eta besteak izenekoak, balio altuxegoak erakusten dituzte, baina 2008an eta 2009an izan zituztenak baino askoz ere apalagoak.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

16 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2008	2009	2009		2010	
			III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	4,1	0,3	-0,3	0,5	1,0	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,3	-0,1	-0,8	-1,3	-2,0	-0,9
Edari alkoholodunak eta tabakoa	4,0	8,4	12,3	12,1	11,5	11,9
Jantziak eta oinetakoak	0,7	-1,4	-1,9	-0,7	-0,7	-0,3
Etxebizitza	6,4	1,9	0,2	0,2	0,6	3,1
Etxeko hornidura	3,0	1,8	2,1	1,1	0,6	0,9
Medikuntza	-0,1	-0,2	-0,4	-0,7	-0,4	0,3
Garraioa	5,7	-5,3	-7,1	0,2	6,3	7,3
Komunikazioak	0,0	-0,6	-0,7	-0,6	-0,5	-1,1
Aisia eta kultura	0,3	0,3	-0,5	-0,8	-1,5	-1,5
Irakaskuntza	4,7	4,2	4,6	2,2	2,1	2,0
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	2,4	2,1	1,7	1,3	1,5
Besteak	3,4	2,5	2,1	1,8	1,4	1,9

Iturria: INE.

Industria prezioen indizeak, KPI indizeak bezala, goranzko joera erakutsi zuen eta norabide aldaketa sendotu zuen, azken hilabeteetan urte arteko tasa positiboak jaso zituelako. IPRiren bizkortzeko prozesuaren atzean energiaren garestitze nabarmena dago, 2009. urtearen zati handi batean urte arteko tasa negatiboak jaso ondoren, gaur egun oso balio altuetan kokatu baita.

Bitartean, energiakoak ez diren industria prezioen barnean, prezioen gorakadari ekarpena egin dion talde handietako bakarra bitarteko ondasunena izan da, lehengaiek nazioarteko merkatuetan izan duten bilakaeraren ondorioz, munduko ekonomiaren susperraldiarengatik oso bizkor garestitu direlako. Hain zuzen ere, talde horrek %3,8ko urte arteko tasa jaso zuen maiatzean. Aitzitik, kontsumorako ondasunen prezioek tasa negatibo txikietan jarraitzen dute, ondasun iraunkorrak oraindik merkatzen direlako eta ondasun iragankorrek prezio aldakuntzarik erakusten ez dutelako. Azkenik, ekipamendurako ondasunek aldakuntza tasa positiboak baina oso apalak jaso zituzten, inbertsiorako ondasunen eskari ezak agerian utziz, oraindik erabiltzen ez den ekoizpen ahalmena garrantzitsua delako.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

17 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010	
			III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	6,6	-6,2	-9,2	-5,0	0,5	4,2
Kontsumoko ondasunak	4,4	0,0	-0,9	-1,1	-1,1	-0,1
- Kontsumo iraunkorrak	3,1	0,2	-0,8	-0,8	-1,4	-0,6
- Kontsumo iragankorrak	5,0	-0,1	-0,9	-1,3	-1,0	0,0
Ekipamendurako ondasunak	3,0	1,4	1,2	0,6	0,3	0,2
Bitarteko ondasunak	4,2	-7,4	-11,3	-8,3	-2,6	3,8
Energia	20,3	-16,2	-21,1	-6,2	10,8	14,8

Iturria: Eustat.

Lan kostuek hazkunde tasa leundu zuten, aurreko hiruhilabeteko %2,5etik 2010eko lehen hiruhilabetean jasotako %1,7ra. Moteltzeko joera hori bestelako kostuetan (%0,6) gauzatu zen, gutxiago hazi zirelako, soldaten kostuek (%2,1) ez baitziren ia ezer aldatu aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean. Sektoreka, doikuntza industrian eta zerbitzuetan gauzatu zen, baina eraikuntzak gorakada garrantzitsua izan zuen aurreko balioaren aldean.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Kostu guztiak	4,7	2,8	4,6	3,8	0,5	2,5	1,7
- Soldata kostuak	5,8	2,8	4,7	4,1	0,6	2,2	2,1
- Bestelako kostuak	1,7	2,7	4,2	3,1	0,1	3,6	0,6
Kostu osoa industrian	-	0,8	1,6	0,1	-0,9	2,1	0,8
Kostu osoa eraikuntzan	-	0,0	0,0	3,7	-1,0	-3,1	1,2
Kostu osoa zerbitzuetan	-	4,5	6,8	5,5	1,9	4,1	2,4

Iturria: INE.

Azkenik, negozioazio kolektiboaz argitaratu den azken informazioak adierazten du iazko azken hiruhilekoan hasi zen soldaten moteltzeak bere horretan jarraitzen duela eta apirila arte adostutako lan hitzarmenetako soldata igoera %1,8 gehitu zirela, 2009ko batez besteko igoera

baino bederatzi hamarren gutxiago delarik, salbagoardiako klausulak aktibatu ez zirelako eta inflazio tentsio handirik ez dagoelako. Sektore mailako eta enpresa mailako hitzarmenen artean ez da alderik hautematen.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

19. TAULA

	2006	2007	2008	2009	2010(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,9	4,2	5,0	2,7	1,8
- Urtean zehar sinatutakoak	5,0	4,1	4,8	2,8	2,0
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,0	4,2	5,2	2,8	1,8
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,2	4,1	2,6	1,8

(*) 2010eko apirila arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

2010eko urtariletik martxora doan epealdian, finantzaz bestelako eragiketen saldoak 220 milioi euroko superabita erakutsi zuen. Beraz, iazko epealdi berean lortutako balioen aldean (259 milioi euro) %15,0 gutxitu da superabita. Eraitza orokor hori ez da oraindik oso esanguratsua, hiruhileko bakar bati dagokiolako. Alde batetik, eragiketa arrunten saldoa zertxobait negatiboa izan zen (%-2,1) eta kapitaleko eragiketen saldoa (%-15,5) aurreko urtekoa baino askoz ere okerragoa izan zen.

Oro har, bai diru sarrera arruntak bai gastu arruntak gutxitu ziren 2009ko balioen aldean. Aitzitik, kapitaleko atalek gehikuntza garrantzitsuak izan zituzten, baina kopuru horiek arruntenak baino askoz ere txikiagoak izaten dira. Hain zuzen ere, gastu arruntak %1,3 murriztu ziren, transferentzia arruntek beherakada handia (%-2,8) izan zutelako, baina baita langileen gastuak zertxobait (%-0,4) gutxitu zirelako, aurrekontua doitzeko neurrien ondorioz. Beste aldetik, funtzionamenduko gastuak (%0,8) eta finantzazioko gastuak (%12,4) igo ziren. Azken talde horren barnean zorraren interesen ordainketa dago eta ekonomiaren atzeraldiaren ondorioz zorpetzea areagotu zen. Kapitaleko atalean, transferentzien gehikuntza nabarmentzen da, %49,5 gehitu zirelako. Inbertsio errealak, berriz, %3,0 igo ziren iazko balioen aldean.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2010eko urtariletik martxora)

20. TAULA

Mila eurotan

	2009	2010	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	3.045.978	3.002.366	-1,4
2. GASTU ARRUNTAK	2.596.668	2.562.273	-1,3
Langileen gastuak	516.456	514.471	-0,4
Funtzionamenduko gastuak	704.500	710.006	0,8
Finantza gastuak	8.172	9.182	12,4
Transferentzia arruntak	1.367.541	1.328.613	-2,8
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	449.310	440.093	2,1
4. KAPITALEKO SARRERAK	4.773	38.912	715,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	195.273	258.925	32,6
Inbertsio errealak	70.993	73.099	3,0
Kapitaleko transferentziak	124.280	185.825	49,5
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-190.500	-220.013	-15,5
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	258.810	220.080	-15,0

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Itundutako zergen bilakaerak %9,0ko urte arteko tasa positiboa jaso zuen 2010eko lehen bost hilabeteetan, zeharkako zergen gehikuntza nabarmenari esker eta ekonomiaren narriadura leundu zelako.

Oro har, zuzeneko zergek tasa negatiboak jaso zituzten berriro, baina etengabeko hobekuntza ari dira erakusten. Talde horren barnean, PFEZ zergak atzean utzi zituen tasa negatiboak eta aurreko urteko diru bilketa berdindu zuen, lanaren etekinen atxikipeak areagotu zirelako (%1,1). Zerga horretako gainontzeko atalek, berriz, urte arteko beherakadak jaso zituzten, baina atal guztiak kopuru txikiagokoak dira. Neurri handi batean, 400 euroko kenketa kasu batzuetan kendu izanak azaltzen du zerga horren hobekuntza, baina baita enpleguaren narriadura txikiagoak eta kapitaleko errenten gainera atxikipea %19ra igo izanak ere.

Sozietateen gainera zergak, beste behin, emaitza negatiboa jaso zuen eta %-14,5 gutxitu zen 2009ko maiatzaren aldean. Zerga horretako atal guztiek balio negatiboak izan zituzten, baina kuota diferentzial garbiaren emaitza txarrak nabarmendu behar dira, %58,5 gutxitu zelako, diru sarrerak jaitsi zirelako eta itzulketak, berriz, areagotu.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2010eko urtariletik maiatzera)

21. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2008	2009	Aurrekon. %	09/08 aldak. %
PFEZ	1.327.529	1.326.901	31,1	0,0
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	1.780.486	1.799.828	41,1	1,1
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	126.483	113.076	38,8	-10,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	37.317	37.275	43,5	-0,1
- Ondare irabazien atxikipenak	8.881	7.288	27,9	-17,9
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	80.917	79.541	48,8	-1,7
- Kuota diferentzial garbia	-706.554	-710.107	104,0	-0,5
Sozietateen gaineko zerga	195.262	167.020	15,6	-14,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	37.317	37.275	38,8	-0,1
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	8.881	7.288	43,5	-17,9
- Ondare irabazien atxikipenak	80.917	79.541	27,9	-1,7
- Kuota diferentzial garbia	22.583	9.380	1,4	-58,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	51.431	26.237	24,8	-49,0
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	27.619	28.981	36,1	4,9
Ondarearen gaineko zerga	2.811	1.246	2,5	-55,7
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	1.604.651	1.550.384	27,8	-3,4
BEZaren bertoko kudeaketa	1.321.376	1.708.664	56,9	29,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	50.171	56.065	33,7	11,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	42.397	34.202	34,5	-19,3
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	12.936	15.712	42,0	21,5
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	555.988	584.298	37,0	5,1
Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	24.594	24.579	47,4	-0,1
Aseguru sarien gaineko zerga	25.588	27.399	36,2	7,1
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.033.049	2.450.919	48,9	20,6
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	32.263	36.011	39,8	11,6
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	3.669.963	4.037.314	37,8	10,0
BEZaren doikuntza	259.278	255.535	30,7	-1,4
Zerga berezien doikuntza	-56.902	-71.828	56,2	-26,2
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	3.872.340	4.221.021	37,1	9,0

Iturria: Foru Aldundiak.

Diru bilketaren susperraldiaren giltza BEZ zergan egon zen, %29,3 gehiago bildu zuelako. Zenbateko hori oso garrantzitsua da, baina Rover kasuko epaiak baldintzatuta dago, aurreko ekitaldi batzuei lotuta zegoen sarrera aparta ekarri zuelako. Hala eta guztiz ere, sarrera hori

kontuan hartzen ez bada, zergaren emaitza positiboa da oraindik. Alde batetik, enpresa handietako BEZ gordina hazi zen, salmentak areagotu zirelako, kontsumoaren susperraldi hasiberriaren ondorioz; beste aldetik, eskatutako itzulketak gutxiago izan ziren, eta, azkenik, atzerapenen diru sarrerak gehiago izan ziren.

Azkenik, fabrikazioaren zerga bereziek, BEZak bezala, hazkunde positiboak lortu zituzten, zerga horien tipoak goratu zirelako. Bere osagaien artean, hidrokarburoen bilakaera ona nabarmendu behar da, guztizkoan pisu handia duelako. Hidrokarburoen bidezko diru bilketak goranzko joerari eutsi zion (%3,5), erregaien kontsumoak izan zuen gorakadak lagunduta.

Finantza arloa

2010eko lehen hilabeteetan, eta munduko ekonomiaren gorakadak sendotuta, finantza merkatuek suspertzeko joerari jarraipena eman zioten, nahiz eta ezegonkortasuneko aldiak han eta hemen berriro ziren. Greziako egoeraren hauskortasunak eta Europako beste herrialde batzuetara hedatzeko arriskuak tentsioko aldiak eragin zituen zor publikoko, truke eta burtsa merkatuetan aurtengo lehen hilabeteetan. Grezian zerga defizita finkatzeko egitasmoek aukera bat eman zuten otsailaren erdialdean tentsioak baretzeko, baina apirilean berriro piztu ziren. Egoera horren larritasunaren ondorioz, apirilaren 23an Greziako gobernuak finantza laguntza eskatu zien Eurogunearen gainontzeko herrialdeei eta Nazioarteko Diru Funtzari.

Grezian bizitakoa ez zen kasu isolatu bat izan. Alemania, Espainia, Portugal eta Italia ere finantza publikoen desorekak murrizteko hersturako erreformak aurkeztera behartuta egon ziren, neurri handi batean susperraldia sustatzeko hartu ziren ezohiko neurriek sortuak. Finantza publikoetako egoerak Euroguneko gobernuak eta Europako Banku Zentrala eremuaren finantza egonkortasuna bermatzera bideratutako hainbat neurri iragartzera behartu zituen.


Eurogunean zeuden tentsioen aurrean, Europako Banku Zentralak %1,0an utzi zuen esku hartzeko interes tasa eta ezohiko neurriak berriro hartzea erabaki zuen, berauek urratsez urrats kentzeko asmoa alboratuz. Hori horrela izanda, %1eko tasa finkoan egiten zituen hiru hilabeterako enkanteak luzatu zituen, dolarretan eginiko likidezia enkanteak berriro egin zituen eta zor publikoa erostea ez zuen baztertu. Japoniako Bankuak ere ez zuen esku hartze tasa aldatu eta, EBZk bezala, ezohiko neurriak hedatu zituen, epe finkoko merkatu irekiko eragiketak zabalduz.

Erreserba Federalak diruaren prezioa %0,0aren eta %0,25aren artean mantendu zuen eta, ekonomiaren emaitza onek animatuta, martxoaren amaieran aktiboak erosteari utzi zion. Orobat, ekainaren erdialdean gordailuen ahalmenaren funtzionamendua eskala txikian probatzen hasiko zela iragarri zuen. Ingalaterrako Bankuak, prezioak nabarmen garestitu ziren arren, ez zuen beharrezkotzat jo interes tasak aldatzea. Hala ere, aktiboak erosteko egitasmoa, otsailetik aurrera bertan behera geratuko zela erabaki zuen. Kanadako Bankuaren jardura azpimarratu behar da, ekainaren 1ean, ekonomiaren jarduerak eta enpleguak gorakada garrantzitsua izan zutelako, esku hartze tasa puntu laurden bat igo zuelako, %0,5ean kokatu arte. Mugimendu horri esker, interes tasak igo zuen G-7ko lehen ekonomia izan zen.


Banku zentralen erreferentzia tasak
Ehunekoak

12. irudia


AEB




Eurogunea



Erresuma Batua



Japonia




Iturria: Espainiako Bankua.

Euroak ere merkatuen gorabeherak nozitu zituen. Euroguneko hainbat ekonomiaren zerga egoerak sortu duen ziurgabetasuna hain larria zen, ezen rating enpresa batzuek eta herrialde ezberdinetako ekonomista askok Europako diru bakarraren jarraipena bera zalantzan jarri baitzuten. Euroari laguntza emateko neurriak hartu baziren ere, europar diruak nabarmen galdu zuen balioa dibisa nagusien aldean.


Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

13. irudia


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.

Hain zuzen ere, euroak dolarren aldean izan zuen truke tasa krisiaren une larrietan 1,25 dolarretara jaitsia zen eta azken hilabeteetan are beherago joan da. Euroguneko herrialde

periferikoetan zabaldu zen arrisku pertzepzioaren igoerak eta AEBetako ekonomiaren emaitza onek euroaren balioa 1,1983 dolarretara eraman zuen ekainean. Beraz, urtea hasi zenetik %18aren inguruko balio galera metatu du europar diruak. Ekonomista batzuek euroaren eta dolarraren arteko parekotasuna aurreikusi bazuten ere (maiatzaren amaieran, euroak sei hilabetez jarraian balioa galdua zuen dolarraren aldean, 1999. urtean sortu zenetik inoiz jaso den galeren kateatze luzeena izan dena), ekainaren 9an markatu zuen gutxieneko balioaren ondoren, galdutako balioaren zati bat berreskuratu zuen. Izan ere, astebete bateko epe laburrean, ia %3,0 igo zen euroaren kotizazioa.

Gainontzeko dibisekiko joera oso antzekoa izan zen. Erresuma Batuko ekonomiaren emaitzak espero zirenak baino okerragoak izan ziren arren, urte hasieratik maiatza arte libera esterlinak %4,7 gehiago balio zuen euroaren aldean. Europako finantzen inguruan hedatu zen ziurgabetasunak yenaren balioa gorarazi zuen, ekainean 109,8 yen euro baten truke kotizatzerara iritsi baitzen, euroak 2001eko hasieratik izan duen baliorik apalena baita.

Argitaratu ziren datu makroekonomikoak onak izan ziren eta Atlantikoaren bi aldeetako ekonomien egoerak hobekuntza garrantzitsua erakutsi zuen. Orobat, Eurogunean eta AEBetan kotizatzen duten enpresek mozkin handiagoak lortu zituzten. Hala eta guztiz ere, mundu osoko burtsek gorabehera handiak izan zituzten, Europako herrialde subiranoen arriskuak eta berau finantza sistemara hedatzeko aukerak eragiten zuten kezkarengatik. Ekonomiaren jarduerarekin gertatu zen bezala, burtsek ere abiadura ezberdinak izan zituzten. Izan ere, Europako indizeek hilabete batean %10aren inguruko beherakada biziak jaso zituzten bitartean, AEBetako eta garapen bidean dauden herrialdeetako burtsetan eragina askoz ere txikiagoa izan zen.


Euroguneko zor publikoaren tituluen balizko balio galerek eragin zuten beldurrak beherakada garrantzitsuak ekarri zizkieten burtsei apirilean. Bereziki azpimarragarria izan zen espainiar burtsaren jaitsiera, IBEX-35 indizea 9.000 puntuetara jaitsi zelako. Ziurgabetasun hori ez zen maiatzaren 11 arte argitu. Egun horretan, Ecofinek, EBZk eta NDFk Grezia erreskatatzeko egitasmo bat adostu zuten eta, Europako Batzordearekin batera, Greziarena bezalako egoera batean egon zitezkeen herrialdeentzat 60.000 milioi euroko diru kopurua prestatu zuten. Neurri horiek gorantz bultzatu zituzten burtsak, igoera historikoak izan zituztelako. Hala ere, susperraldia laburra izan zen. Hainbat egun beranduago, onartu ziren erreformek eta murrizketek munduko hazkundean izan zitezkeen ondorioek eta Euroguneko zor publikoaren egoeraz zegoen kezkak beste konfiantza krisi bat sortu zuten burtsa merkatuetan, bereziki europar merkatuan, eta aste batzuetan gorabehera handiak jaso ziren berriro.

Banku arteko interes tasak, berriz, egonkor mantendu ziren maila apaletan aurtengo lehen hiruhilekoan eta hala hiru hilabeterako euriborrak nola urtebete baterako euriborrak inoizko baliorik txikienak jaso zituzten martxoan. Urtea aurrera zihoan eta aipatu diren finantza tentsioak areagotzen ziren heinean, euriborrak zertxobait egin zuen gora. Beherago joateko aukerak amaituta, urtebete baterako euriborra igotzen hasi zen eta ekainean 2009ko iraileko balioa berreskuratu zuen. Hala ere, hipoteka gehienek erabiltzen duten erreferentzia tasa hau maila apaletan jarraitu zuen.


Interes tasen bilakaera
%

14. irudia

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra



Iturria: Espainiako Bankua.

Interes tasak oraindik maila apaletan zeuden arren, arlo pribatuari emandako kredituak behera egin zuen berriro. Dena dela, nolabaiteko hobekuntza hauteman zen kredituen eskarian, bereziki hipoteka maileguetan, zeinetan banku maileguen kostuak aurreko udako maila txikien inguruan egonkortzeko joera izan baitzuen. Orobat, konfiantzaren suspertzeak, hala kontsumitzaileenak nola finantza erakundeena, kreditu pribatuen jaitsiera leuntzen lagundu zuen eta aurreko hiruhilabeteen %5,0 gutxitu bazen, bi puntu baino gehiago egin zuen gora eta %-2,9an kokatu.


Beste hiruhileko batez, arlo publikoari emandako finantzazioak jaso zituen hazkunde handienak. Hain zuzen ere, 2010eko lehen hiruhilekoan 3.200 milioi euro baino gehiago eman zioten arlo publikoari kredituetan, urte arteko tasan %86,7ko igoera delarik. Jarduerak eta

finantza arloak hoberantz egin zuten arren, finantza erakundeek lehentasuna eman zieten berriro arrisku gutxiko sektoreei.


Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

15. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Zalantzasak kredituen bolumenak ere gutxiago hazteko zantzuak erakutsi zituen, finantza presioa egonkortzen zen heinean. Zehazkiago, berankortasuneko ratioa zertxobait igo zen, %2,76tik %2,81era. Azken hiru hilabeteetako gorakada sei ehunenekoa izan zen bakarrik, krisiaren une larrienetan hiruhilabete batetik hurrengora ezagutu zen gehikuntza bi eta hiru hamarrenen artekoa izan zen bitartean. Beste aldetik, estaldura tasa orokorra, ordaintzen ez dena estaltzeko dauden funtsak erakusten baitu, bigarren hiruhilekoz jarraian areagotu zen. Horrek eta berankortasuneko tasaren egonkortasunak pentsarazten dute finantza arloa normaltzeko bidean dagoela.

Azkenik, gordailu pribatuak berriro hazi ziren, baina erritmo apalago batean. Gordailu mota guztiak gutxiago hazi ziren. Hala ere, aurrezki kontuek eta ageriko kontuek hazkundeak lortu zituzten eta, aitzitik, eperako ezarpenek eta atzerriko dirutan eginiko gordailuek behera egin zuten. Horrek agerian uzten du eragileek likidezia nahiago dutela, langabeziaren hazkundearen aurrean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Testuinguruarentzako aurreikuspenak

Munduko ekonomiak Bigarren Mundu Gerratik aurrekaririk ez zuen krisi ekonomikoa pairatu du. Finantza krisiak, etxebizitzaren merkatzeak, langabeziaren gorakadak eta eragileen mesfidantzak azken urteetako hedatze aldiari amaiera eman zioten eta munduko ekonomia nagusiak atzeraldian sartu ziren. Mendebaleko ekonomien ahultasunak garapen bidean dauden herrialdeak kutsatu zituen eta, gutxiago izan bazen ere, azken horiek ere kaltetuta atera ziren. Hala eta guztiz ere, munduko jardueraren adierazleek ekonomiaren susperraldia sendotzen ari dela baieztatzen dute. Ekonomiaren hobekuntza 2010. urtean zehar gauzatuko da eta 2011. urtean finkatuko da. Dena dela, susperraldia ez da berdin garatuko eremu guztietan. Orobat, herrialde batzuetan ekonomiaren egoeraz etengabe agertzen diren seinale negatiboek arrisku eta ziurgabetasuneko giroa sortu dute, munduko ekonomiaren etorkizuna mehatxupean kokatu dutelarik.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

22. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Munduko ekonomia	-2,1	3,4	3,4	1,4	2,7	2,7
AEB	-2,4	3,3	3,1	-0,3	2,0	1,9
Kanada	-2,6	3,3	3,0	0,3	1,9	2,2
Japonia	-5,2	2,4	1,7	-1,4	-1,0	-0,2
Eurogunea	-4,0	1,1	1,5	0,3	1,3	1,4
Europar Batasuna	-4,1	1,1	1,7	0,8	1,6	1,6
Alemania	-5,0	1,6	1,7	0,4	1,0	1,2
Espainia	-3,6	-0,4	1,0	-0,3	1,5	1,6
Frantzia	-2,2	1,5	1,6	0,1	1,5	1,5
Herbehereak	-4,0	1,4	1,6	1,2	1,2	1,4
Italia	-5,1	0,8	1,1	0,8	1,5	1,8
Erresuma Batua	-4,9	1,3	2,3	2,2	2,9	1,8
Asia eta Ozeano Barea	1,5	5,9	5,2	0,8	2,2	2,4
Ekialdeko Europa	-4,2	1,1	1,7	0,6	1,5	1,6
Amerika Latinoa	-1,9	4,2	3,8	5,5	7,5	6,8


Iturria: Consensus Forecast (2010eko maiatza).

Estatubatuar ekonomia lehena izan zen atzeraldian sartzen eta gaur egun susperraldiaren aitzindaria izango da ekonomia garatuen artean. Finantza arloan lortu den egonkortasuna eta Asiako ekonomien susperraldi azkarra dira AEBetako ekonomiaren hazkunde erraztuko duten oinarriak. Konfiantza merkatuetara itzultzen denean, bertako barne produktu gordinak gora egingo du. 2010eko hazkunde ekonomikoa %3,0aren inguruan kokatuko da eta puntu erdi bat motelduko da 2011. urtean.


BPGren bilakaera eremuka
Urte arteko aldakuntza tasak

16. irudia


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina




Iturria : NDF. 2010eko apirilko aurreikuspenak.

Aurreikuspenen arabera hazkunde azkarra lortuko duten beste herrialde batzuk Japonia eta, bereziki, Txina eta India izango dira. Jardueraren susperraldia horren garatuta ez dauden Asiako herrialdeetan hasi da, finantza krisitik eratorri ziren kreditu murrizketek barne eskaria ekonomia garatuetan baino gutxiago kaltetu zutelako. Herrialde horietarako hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi dira 2010. urtean eta munduko ekonomia azken hilabeteetan aurreikusi zena baino bizkorrago suspertzea ahalbidetuko dute. Munduko BPGren hazkundera ez da berdina izango eremu guztietan eta garapen bidean dauden ekonomiek bizitasun handiagoa erakutsiko dute. Beraz, eremu horiek ekarpen handiagoa egingo diote munduko hazkunderari. Japoniak, berriz, suspertzeko aurreikuspenak hobetu ditu datozen urteetarako. Txinako ekonomiarekin duen lotura handiagoak goranzko berrikusketa eragin du.


Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

17. irudia

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Eurogunean eta Europako ekialdeko herrialdeetan, krisiaren irteera beranduago eta ahulago gauzatzen ari da. Izan ere, ekonomia hauek neurri handiagoan ordainduko dute krisiaren kostua. Ekonomiaren adierazleek eta nazioarteko erakundeek aurreikuspenek suspertzeko joera ahulagoa erakusten dute Eurogunerako gainontzeko ekonomia garatuen aldean, hala jarduera errearen bilakaeran nola inportazioen suspertzean. Ekonomia bilakaeraz egin diren estimazioek oso hazkunde tasa motela aurreratzen dute 2010ean eta 2011n, azken urte horren amaieran atzeraldiaren aurreko maila oraindik berreskuratzeko ez delarik. Europar Batasuneko kideen artean, bi talde bereizi behar dira: ekonomia biziagoen taldea, Alemaniak, Frantziak,

Eslovakiak eta Finlandiak osatua, eta hazkunde gutxiko taldea, Espainia, Italia, Portugal eta Grezia barnean hartzen dituenak.

Hain zuzen ere, Espainia da susperraldia ziurtatuta ez duen eta zalantza betetako den Europako herrialdeetako bat. Azken urteetan gertatu zena ez bezala, espainiar ekonomiak Euroguneko herrialdeak baino gutxiago haziko da 2010-2011 epealdian, kontu publikoetan dauden desorekak zuzentzeko behararen ondorioz eta atzeraldian lanpostu asko galdu zirelako. Ekonomia Aurreikuspenen Erakundearen (Ceprede) datuen arabera, barne produktu gordinaren 2010eko bilakaera apala izango da eta hazkunde tasa positiboak 2011. urtean hasiko dira lortzen. Aurreikuspenak egiten dituzten beste erakunde batzuek, Funcasen aditu taldean bilduta, antzeko iragarpenak egiten dituzte 2010 eta 2011 urteetarako, eta ekonomiaren hazkunde tasa $-0,5\%$ eta $1,0\%$ kokatu dute, hurrenez hurren. Nazioarteko Diru Funtsak uste du Espainiak hazkunde tasa negatiboa izango duela 2010. urtean, eta berarekin batera Europako beste herrialde batzuk ere, hala nola Irlandak eta Greziak.

Nazio eskaria urratsez urrats egokituko da 2010 eta 2011 urteetan. Kontsumoak suspertzeko joera arina erakutsiko du, baina hazkunde tasa apaletan jarraituko du aberastasun efektua negatiboa delako, langabeziak gora egingo duelako eta onartu diren doikuntza neurri berrien ondorioz, soldata murrizketak, gizarte prestazioak gutxitzea eta zergak igotzea ekarriko dituztelako. Mesfidantzazko eta ziurgabetasuneko testuinguru horretan, familiek zuzentzeko aurrezkiak auzeratzen dute. Gobernuak Estatuaren kontuak onbidatzeko onartu dituen gastu murrizteko politikek kontsumo publikoaren moteltze garrantzitsua eragingo dute. Inbertsioak suspertzeko joera neurritsua izango du ekipamendurako ondasunen atalean eta beharrezko txikiagoa eraikitzen osagaien, oraindik higiezinaren doikuntza amaitu gabe baitago. Barne zein kanpo eskarien gorakadak esportazioak eta inportazioak areagotuko dituzte, baina lehenengoak gehiago haziko dira. Beraz, kanpo arloak BPGren hazkundera egingo dion ekarpena positiboa izango da berriro.

Enplegua murriztuko da 2010 eta 2011 urteetan. Cepredek estimatu du 495.000 lanpostu galduko direla bi urte horietako epealdian. Lanpostu gehienak 2010. urtean galduko dira. Horren ondorioz, eta lan merkatuan parte hartzen duen biztanleria zertxobait murriztuko den arren, langabezia tasa 2010ean $19,5\%$ igoko dela eta 2011. urtean tasa horretan jarraituko duela aurreikusten da. Krisialdian jaso diren langabezia tasa altuak galga garrantzitsua dira espainiar ekonomiarentzat. Ekonomiaren jarduerak urte asko beharko ditu langabezia maila altu hori gutxitzeko.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko apirila)

23 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoa eta bestean	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-0,6	0,7	-0,7	0,8	-0,1	-0,8	-7,0	-0,6	-7,7	-3,1	-4,0	3,4
BBVA	-0,8	----	-0,6	----	2,9	----	-7,1	----	-7,3	----	-7,1	----
Caixa Catalunya	-0,4	----	0,0	----	1,4	----	-4,2	----	-6,5	----	2,8	----
Caja Madrid	-0,5	1,1	-1,7	0,6	1,1	1,1	-5,9	2,2	-6,3	1,0	-2,0	4,4
Cemex	-0,8	0,5	0,0	1,0	0,6	1,2	-8,0	-0,2	-9,9	-4,7	-5,6	5,0
CEEM-URJC	-0,6	1,3	-0,2	1,3	0,2	-0,8	-6,4	0,5	-7,0	-1,1	-6,5	3,1
CEPREDE-UAM	-0,3	1,1	-0,4	0,9	2,6	2,3	-5,9	1,0	-6,5	0,2	-1,4	3,8
FUNCAS	-0,7	0,8	0,1	1,2	-1,0	-1,6	-7,6	-2,9	-9,0	-6,1	-2,1	1,5
ICAE-UCM	-0,5	----	-0,6	----	1,2	----	-6,2	----	-7,7	----	-1,5	----
IEE	-0,8	----	-0,5	----	3,0	----	-7,2	----	-8,5	----	-6,0	----
IFL-UC3M	-0,4	0,7	-0,2	0,9	0,1	1,5	-5,0	-2,0	-7,6	-4,9	4,5	4,4
Intermoney	0,7	----	0,8	----	2,2	----	-3,4	----	-5,1	----	4,8	----
La Caixa	-0,4	1,5	-0,1	0,7	-0,2	0,6	-5,7	0,7	-7,6	-0,2	-0,7	3,3
Repsol	-0,5	0,9	0,3	1,1	0,9	0,8	-5,7	-1,7	-9,1	-5,7	4,5	6,3
Santander	-0,4	1,3	-0,4	1,2	3,5	2,1	-6,6	-1,3	-5,7	-2,2	-8,1	0,3
Batez bestea	-0,5	1,0	-0,3	1,0	1,2	0,6	-6,1	-0,4	-7,4	-2,7	-1,9	3,5
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-01)	-0,3	1,8	-0,1	2,5	1,2	-0,4	-6,5	0,3	-9,3	----	-0,5	----
Esp. Bankua (2010-03)	-0,4	0,8	0,2	1,0	1,2	-0,2	-9,8	-3,5	-12,7	-7,2	-3,2	1,1
E. Batzord. (2010-02)	-0,6	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
NDF (2010-01)	-0,6	0,9	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2009-11)	-0,3	0,9	-1,1	0,6	----	----	-5,3	-0,8	----	----	----	----

Iturria: Funcas.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko apirila)

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-2,1	0,2	3,8	4,8	-2,8	2,5	1,1	2,1	-2,6	0,0	19,6	20,0
BBVA	-1,8	----	2,5	----	-1,2	----	1,6	----	-1,9	----	19,0	----
Caixa Catalunya	-0,7	----	4,8	----	3,2	----	1,5	----	-1,6	----	18,7	----
Caja Madrid	-2,1	1,0	0,9	4,6	-4,6	4,2	1,1	1,5	-2,5	0,1	20,1	20,1
Cemex	-1,8	0,8	3,7	3,8	0,3	4,1	1,4	1,3	-0,8	0,6	20,5	19,0
CEEM-URJC	-1,7	0,7	3,5	4,0	-1,0	1,3	1,3	1,6	-2,2	0,2	19,4	20,0
CEPREDE-UAM	-1,0	1,3	1,1	2,9	-2,3	3,3	1,6	2,1	-1,8	0,3	19,3	19,5
FUNCAS	-1,8	-0,3	6,5	6,0	1,6	1,5	1,2	1,3	-2,8	-0,6	19,4	18,8
ICAE-UCM	-1,5	----	4,8	----	-0,4	----	1,5	----	-2,7	----	20,2	----
IEE	-1,9	----	1,0	----	-2,0	----	1,5	----	-2,0	----	20,0	----
IFL-UC3M	-1,3	0,3	6,0	3,9	2,0	2,0	1,4	1,4	-2,7	0,2	20,3	20,2
Intermoney	0,2	----	6,3	----	3,3	----	1,7	----	-1,2	----	19,0	----
La Caixa	-1,4	0,7	2,2	5,0	-2,3	1,7	1,3	1,1	-2,3	0,1	19,5	19,4
Repsol	-1,1	0,3	5,9	4,8	1,7	2,1	1,3	1,4	-2,8	-0,5	19,5	19,7
Santander	-1,1	0,9	3,8	4,9	0,4	3,0	1,6	2,0	-1,9	0,2	19,8	19,0
Batez bestea	-1,4	0,6	3,8	4,5	-0,3	2,6	1,4	1,6	-2,1	0,1	19,6	19,6
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-01)	-1,4	1,4	2,8	5,2	-1,3	3,7	1,4	1,8	-2,0	0,6	19,0	18,4
Esp. Bankua (2010-03)	-1,9	-0,3	5,0	4,8	-1,5	0,7	1,1	1,1	-2,6	-0,3	19,4	19,7
E. Batzord. (2010-02)	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
NDF (2010-01)	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
ELGE (2009-11)	-1,6	0,3	5,5	7,8	-0,4	5,4	0,8	-0,1	----	----	19,3	19,0

Iturria: Funcas.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2010eko ekaina)

25 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
BPG	-0,2	-0,4	-0,4	-0,6	-0,5	0,1	1,0	1,5	0,5
Kontsumo pribatua	0,6	-0,4	-0,4	-0,2	-0,5	-0,1	1,0	1,4	0,4
Kontsumo publikoa	1,5	1,4	1,3	1,4	1,0	1,0	0,5	-0,1	0,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	-6,7	-4,5	-3,2	-6,2	-3,5	-1,7	-0,2	0,8	-1,2
- Inbertsioa ekipamenduan	0,3	1,0	2,2	0,2	2,8	3,9	5,8	6,2	4,7
- Inbertsioa bestelakoetan	-11,4	-4,6	-3,1	-9,5	-2,9	-0,2	0,7	2,5	0,0
- Inbertsioa eraikuntzan	-8,1	-6,7	-5,6	-7,8	-6,5	-4,5	-3,2	-2,2	-4,1
Barne eskaria	-0,9	-1,0	-0,8	-1,3	-0,8	-0,1	0,8	1,3	0,3
Esportazioak	3,0	2,4	2,4	3,9	2,5	2,6	2,7	3,0	2,7
Inportazioak	-0,4	-0,4	0,2	0,5	0,4	0,9	1,1	1,3	0,9

Iturria: CEPREDE.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak

18. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

Gastuaren igoerak eta diru sarreren jaitsierak oso nabarmen okertu zuten defizit publikoa 2010eko lehen hilabeteetan, azken urteetako estatistikan aurrekaririk ez duena. Espainiako ekonomian ezarri diren doikuntza neurriek defizit publikoa datozen urteetan murriztea dute helburu. Gastuan zuhurtzia gehiago erabiltzeak eta diru sarrerak, bereziki zeharkako zergen

bidez, areagotzeak defizita 2010eko bigarren seihilekotik gutxituko dutela espero da. Zalantza handiena da kontu publikoetan nabaritu den zuzenketa garrantzitsu horrek zer eragin izango duen hasi berria den ekonomia jardueraren susperraldian.

EA Erako aurreikuspenak

Kanpoko testuinguru horrekin eta argitaratu diren azken adierazleekin, Euskal Autonomia Erkidegoak datozen urteetan izango dituen hazkunde tasak eguneratu dira. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak estimatu duenez, EAEko ekonomia %0,5 haziko da 2010. urtean eta zerbait gehiago lortuko du 2011. urtean, urte horretako hazkunde tasa %1,6ra iritsiko baita. Beraz, suspertzeko erritmoa ahula izango dela aurreikusten da.

Eskaintzaren ikuspegitik, industria jarduerak hobekuntza arina izango duela aurreikusten da, sektore horretako balio erantsia %0,9 haziko baita 2010. urtean. Industriaren susperraldia 2011n gauzatuko da, urte horretako hazkunde tasa %2,3ra iritsiko baita. Eraikuntzaren balio erantsiak nahiko garrantzitsua izango den beherakada nozituko du eta ez da urte arteko aldakuntza tasa positiboetara itzuliko aztertu den epealdi osoan. Etxegintzaren eskari apalak eta gainontzeko atalen gainbehera konpentsatzeko obra publikoak erakusten duen ezintasunak eraikuntza arloko jardueraren murrizketa nabarmena eragingo dute. Higiezinaren arloko doikuntza lortzeko ezinbestekoa da bizitegien salneurria gehiago jaitea, eskaria eta eskaintza orekatzeko. EAEko ekoizpen egituraren pisu handiena duen sektorea, hots, zerbitzuak %1,0 haziko dira 2010. urtean eta tasa hori %1,8ra iritsiko da 2011. urtean. Hazkundearen suspertzea biziagoa izango da zerbitzu pribatuaren, zeren eta aurrekontuetako murrizketek zerbitzu publikoen portaera ahulagoa eragingo baitute.

Barne eskariaren osagai guztiek, salbuespen bakarra administrazio publikoetako kontsumoa delarik, hazkunde tasa motelak izango dituzte datozen urteetan. Familien konfiantzak izan duen igoera txikiak aberastasun efektu negatiboa eta lan merkatuaren bilakaeraz dauden aurreikuspen ezkorrak konpentsatuko ditu. Azken elementu horiek eragina izan dute EAEko familien portaera zuhurrean, irabazten dutena aurreztu nahiago dutelako, ekonomiaren egoera zalantzaz beterik dagoelako eta mehatxu arriskutsuak daudelako. Barneko azken kontsumoaren hazkundea %0,2 izango da 2010. urtean eta %1,0ra helduko da 2011n, aurreikuspen honen arabera.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2010eko ekaina)

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
BPG	-0,6	0,8	0,8	1,1	0,5	1,3	1,5	1,7	1,9	1,6
Azken kontsumoa	-0,3	0,1	0,5	0,7	0,2	0,6	0,9	1,2	1,2	1,0
Kontsumo pribatua	-0,6	0,0	0,8	1,1	0,4	1,1	1,2	1,4	1,4	1,3
Kontsumo publikoa	0,5	0,4	-0,8	-0,9	-0,2	-0,9	-0,3	0,3	0,7	0,0
Kapital eraketa gordina	-4,7	-0,3	0,8	1,4	-0,7	1,4	1,9	2,4	2,8	2,1
Barne eskariaren ekarpena	-1,5	0,0	0,6	1,1	0,1	1,2	1,2	1,6	1,7	1,4
Kanpo saldoaren ekarpena	0,9	0,8	0,2	0,0	0,4	0,1	0,3	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	-19,5	-10,4	-16,9	-7,8	-13,6	2,1	4,2	5,6	6,9	4,7
Industria	-1,6	1,4	1,8	1,9	0,9	2,0	2,1	2,3	2,7	2,3
Eraikuntza	-6,5	-3,4	-3,0	-2,5	-3,8	-2,3	-2,1	-2,1	-1,3	-2,0
Zerbitzuak	0,7	1,2	1,1	1,1	1,0	1,6	1,8	1,9	2,0	1,8
Balio erantsi gordina	-0,7	0,7	0,8	0,9	0,4	1,3	1,5	1,7	1,9	1,6
Ekoizkinen g. zerga garbiak	0,0	0,6	1,0	1,5	0,8	1,8	1,9	2,1	2,1	2,0
BPGren deflatoarea	0,9	1,0	1,3	1,4	1,2	1,8	1,9	2,1	2,3	2,0
Enplegua	-1,9	-0,9	-0,5	-0,1	-0,9	0,0	0,3	0,6	0,8	0,4
Langabezia tasa	8,9	9,2	9,4	9,5	9,3	9,4	9,2	9,2	9,0	9,2


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kapitaleko eraketa gordinak bizkortzeko joera arina ezagutuko du kontuan hartu den epealdian. Barneko eta kanpoko eskarien gorakadak agregatuaren hazkundera bultzatuko du. Nazioarteko ekonomiarentzat egin diren aurreikuspenak eta EAEko industriak kanpoarekiko duen irekiera gradu garrantzitsua kontuan hartuta, Europarentzat aurreikusten den susperraldiak bultzada nabarmena emango dio EAEko ekoizpenari. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenek tasa negatibotan (%-0,7) kokatzen dute agregatu horren 2010eko hazkunde tasa, baina emaitzak hobeagoak izango dira 2011. urtean eta %2,1eko gehikuntza lortuko du.

Ingurunekeo ekonomien susperraldiaren ondorioz, bai esportazioek bai inportazioek gora egingo dute. Inportazioak esportazioak baino gutxiago haziko direnez, kanpo arloak ekarpen positiboa egingo dio BPGren hazkundeari 2010ean eta 2011n. Merkataritzako bazkideen ekonomia egoera hobean egongo denez eta merkatuetan konfiantza itzuliko denez, merkataritzako fluxuak areagotuko dira eta EAE horretaz baliatuko da nazioarteko merkatu nagusietan kokatuta dagoelako.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
 Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Ekonomia jarduerarentzat estimatu den bilakaera ahulak enplegu galerak ekarriko dizkio EAEko ekonomiari, baina galera horiek aurreko urtekoak baino txikiagoak izango dira. Hain zuzen ere, 2010. urterako aurreikuspenek 9.000 lanpostu inguru galduko direla estimatu dute. 2011. urtean, tuneletik irteten hasiko da eta ekonomiaren susperraldiak enpleguaren igoera txiki bat ekarriko du. Langabezia tasak etengabeko gorakada izango du 2010. urtean, epealdi osoan zehar lanik gabeko pertsonen kopuruak gora egingo duelako. Aitzitik, 2011n langabezia tasa gutxitzeko joera ahula ezagutuko da.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu duen eszenategi makroekonomikoa nazioarteko ingurunearen bilakaeraz, datozen urteetan izango diren prezioez, euroak dollarraren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak bere moneta politikan ezarriko dituen interes tasez eginiko hainbat hipotesitan oinarritzen da.

Datozen urteetarako, ez da inflazio altuko eszenategirik aurreikusten. BPGren deflatorea %1,2 izango da 2010ean eta %2,0aren ingurukoa 2011n. Ezaugarri hori komuna da Euroguneko eremu guztietan eta, horren ondorioz, EBZk moneta politikak planifikatzeko orduan ekonomiaren hazkundera laguntza ematea helburu nagusitzat hartu dezake, horretarako kreditua erraztuz, prezioaren egonkortasunaren orde. Aurreikuspen gehienek epe laburreko interes tasak etengabe baina oso gutxi igoko direla seinalatzen dute. Estimazioek epe laburreko

tasak %1,0aren inguruan kokatzen dute 2010eko erdialdean eta %1,5aren inguruan 2011ko lehen hilabeteetan. Igoera neurritsua izango da eta eskari erreala suspertuko den eta prezioen joerak finkatzen diren heinean gauzatuko da. Izan ere, interes tasen zuzenketa horrek susperraldia errealaren abisua emango du.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2010eko maiatza)

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
AEB	2,3	1,7	1,1	0,7	1,5	0,7	0,9	1,2	1,1	1,0
Eurogunea	1,1	1,6	1,7	1,8	1,5	1,8	1,5	1,4	1,3	1,5
Espainia	1,1	1,4	1,5	1,7	1,4	1,5	1,4	1,1	0,8	1,2
EAE	1,0	1,2	1,2	1,5	1,2	1,8	1,5	1,3	1,1	1,4

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).

KPIren bilakaera

20. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat, INE eta Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).

Truke tasari dagokionez, gaur egungo aurreikuspenak aurreko hiruhilabetekoak baino euro ahulago bat hartzen du kontuan. Estaturatuaren suspertze biziagoa eta interes tasen arteko aldea murriztu izana izango dira dolarraren balioa euroaren aldean areagotuko diren alderdiak. Hala eta guztiz ere, euroaren kasuan, herrialde batzuek krisian egin duten

kudeaketa txarrak eta erreformen sakontasun ezak merkatuetan eragin dituen zalantzek europar diruaren balio galera areagotu dute. Eurogunean neurri bateratuak onartzeak euroaren ahulezia epe laburrean leunduko duela aurreikusten da, dolarrarekiko truke tasa 1,28aren eta 1,20aren arteko urkila batean egonkortuz. Hala ere, neurri horiek merkatuetan sortuko duten konfiantza izango da euroaren bilakaera baldintzatuko duena. Euroguneko doikuntza sendoa eta sakona bada, diru bakarren balioak gora egingo du. Bestela, dolarrarekiko parekotasuna itzuliko da, 2002ko amaieratik inoiz bizi ez den egoera baita hori.

